

SINADURAK

	JUANKAR LOPEZ MUGARTZA / 5		SAKANAKO BERDINTASUN ZERBITZUA / 5
	JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON / 10		OIHANE AGIRRE ULAIAR / 23



Mitoaroaren hasiera

Unanuri eta mamuxarroei eskainitako kontzertua
eman zuen ZETAk, Unanun / 22-23

Adinekoen nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko proiektuari segida eman nahi diote / 7

21 hilabeteren ondoren Uharteko Udalak argindarra sortzeko turbina konektatu du / 11

Igor Arrieta eta Iker Mintegi ikusgarri aritu ziren Munduko Txirrindularitza Txapelketetan / 16

Urbasako Igoera, "igoera onena" dela dio Harby pilotu mitikoak. Bihar jokatu da / 18-19

Euskal Herriko Pegatineren Elkartearen 22. topaketa izanen da, bihar, Altsasun / 21

ASKOTARIKO SAKANA

Aniztasuna erein

LAKUNTZA

Urriak 10, 18:30ean
Kultur etxean

**MIAUKATUZ
BOLEIBOL KLUB
INKLUSIBOA
LGTBIQ+**

Hitzaldia: Antuan Sáez Gavilanes, Rebeca Romo Hernandez eta Asier García Urbina (elebitan)

Boleibol partida parte-hartzailea.

Dinamizatzailea: Nekane López de Luzuriaga Echevarria

ETXARRI - ARANATZ

Urriak 11, 18:30ean
Kultur Etxean

**"LGTBI- FOBIA KIROLEAN
ERREALITATE BAT DA"**
dokumentala eta mahai ingurua (EUS)

Olaia Eizagirre

Sagastibeltza: Palista eta entrenatzailea

Iñaki Rubio Mendoza:
Kazetaria

Bea Sever. Naizen adingabe transexualen familien elkarte.

Dinamizatzailea: Amets Castrejana. Berdintasun ahokularia kirol eremuan. Feminista eta LGTBIQ+ aktibista.

Informazio gehiago:

berdintasuna@sakana-mank.eus



Gobierno de Navarra

Nafarroako Gobernua



Instituto Navarro para la Igualdad

Nafarroako Berdintasunerako Institutua



"Heteroek ez dute guk pasatu beharreko asimilazio prozesua pasatu behar izaten"

OLAIA EIZAGIRRE SAGASTIBELTZA KIROLARIA

Palista eta entrenatzaile etxarriarrak Mank-ek antolatutako 'LGTBifobia kirolean errealitate bat da' mahai inguruan parte hartuko du, ostegunean, Etxarrin

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Sakanako Mankomunitateak zenbait udal eta entitateekin batera *Askotariko Sakana, Aniztasuna erein* programaren barruan *LGTBifobia kirolean, errealitate bat da* izeneko dokumentala eskainiko du urriaren 11n Etxarri Aranatz, 18:30ean. Dokumentalean agertzen denetako bat Olaia Eizagirre Sagastibeltza da, eta etxarriarrak ondoren hasiko den mahai inguruan parte hartuko du. Olaia Eizagirre aspaldiko ezaguna da kirol munduan. Gure Pilota klubeko palista da txikitatik, palista aparta; makina bat trofeo ditu bere apaletan. Bestalde, pala entrenatzailea da. Tarte batean Berriozar taldeko futbolari izan zen, baina lesio batenatik utzi behar izan zuen. Hori gutxi ez balitz, Jarduera Fisikoa eta Kirola doktoretza tesia egiten ari da, Gipuzkoako emakumeen jarduera fisikoaren inguruan. Emakume todoterrenoa.

Danimarkan harrapatu zaitugu doktoretza tesia prestatzen.

Kopenhagera etorri naiz 3 hilabeteko egonaldia egitera, bertako ikerlari batzuen esperientziak ezagutu, eta bitartean nire tesiko lanekin aurreratzeko, baina

Sakanako Mankomunitateak ostegunean Etxarri Aranatz prestatu duen *LGTBifobia kirolean errealitate bat da* mahai ingurura hurbilduko naiz.

Dokumentalean pala entrenatzaile zaren aldetik jo dute zuregana, baina, horretaz gain, LGTBI+ kolektiboko kidea bazara. Lehendabiziko galdera, agerikoa: "LGTBifobia kirolean errealitate bat da" baieztapena egia al da?

Bai. Nik esperientzia pertsonaletik ez dut eraso nagusirik nabaritu, baina LGTBIfobia ez da bakarrik eraso argiak, irainak edo eraso fisikoak jasotzea; gizarteak, nolabait, bidaltzen dizkizun mezuak ere badira. Kirolak, orokorrean, tradizio maskulinoko testuinguru bat izanda, LGTBIfobia oraindik gehiago nagusitzen da. **Kirolaren arabera gehiago edo gutxiago nabaritzen al da LGTBIfobia? Futbolari eta palista zaren aldetik, ezberdina al da portaera?**

"LGTBIFOBIA EZ DIRA SOILIK IRAINAK EDO ERASOAK; GIZARTEAK BIDALTZEN DIZKIGUN MEZUAK ERE BADIRA"

Futbolak eta palak, kasualitatez, maskulinitate hegemonikoan indar handia badute, eta alde horretatik nahiko antzekoak direla esango nuke, baina nik bizi izan ditudan testuinguruak ez dira berdinak izan. Arbizun areto futboleant hasi nintzen, baina futboleant aritzeko Berriozarrera joan nintzenean testuinguru aldatu zen, batez ere landa eremutik hirigunerako saltoa izan zelako. Landa eremuetan, orokorrean, presio sozialak eta genero rola betetzeko presioa handiagoa izaten da, eta Iruñean testuinguru irekiago batekin aurkitu nintzen. Landa eremuetan tradizioak markatutako testuinguruak izaten dira orokorrean, maskulinitatea oso presente dago, eta genero rola betetzea baita ere.

Lesbianek eta gay-ek kirolean jasaten duten presioa ezberdina da? Emakumeen artean elkar zaintzeko joera gehiago dagoela kontuan hartuta, adibidez, futboleant lesbiana edo gay izatea, aldea badago.

Gizonen homosexualitatea, futboleant bereziki, sozialki zigortuago dagoela esango nuke. Heteroaraua nagusi da, bereziki gizonen futboleant, eta horrek testuinguru arrotz eta diskriminatzaile bat sortzen du homosexualendako. Orduan, beraiendako ez dira espazio seguruak. Emakumeen kasuan, aldiz, esango nuke orokorrean espazio seguruagoak edo irekiagoak direla, elkarren artean babes gehiago ematen dela, eta, orduan, futbolarien artean babesa aurkitzea errazagoa dela. Baina horrek ez du esan nahi lesbofobia libreko espazioak direnik.

ESTEREOTIPOAK

Nerabeak ginenean nesken artean kirola ez zegoen egun bezain hedatuta, eta neska kirolari askori "marichico" deitzen zitzairen. Egun, emakumezkoen futbolak sekulako booma ezagutu du, eta "futbolarien artean zenbat lesbiana dauden" entzuten da. Zuek ere entzuten dituzue halako aurreiritziak?

Esplizituki ez dut halakorik entzun, baina, azkenean, sentitzen duzu. Halako eta bestelako komentario eta jarrerekin pentsamendu estereotipatu bat lotzen da: emakume futbolariak homosexualitatearekin, edo emakume maskulinoak homosexualitatearekin.

Eta matxismoa ahaztu gabe.

Hori aipatu behar nuen. Azkenean, komentario horiek ere konnotazio matxistak dituzte. Futbolari



Olaia Eizagirre Sagastibeltza Kopenhagen dago, tesia egiten. UTZITAKOIA



Olaia Eizagirre futbolari garaietan, Berriozarren. UTZITAKOIA

"KIROLAK TRADIZIO MASKULINOKO TESTUINGURUA DU. LGTBIFOBIA GEHIAGO NAGUSITZEN DA"

"ALDAGELENA GAI OSO KONPLEXUA DA. TRANS-AK SEGURU ETA LASAI SENTIARAZI BEHAR DITUGU"

guztiak lesbianak direla esateak heteroarauaren kanpo daudela esan nahi du, ez daudela gizonezkoendako eskuragarri, eta, kasu horretan, ezin dituztela beraien pribilegioak aplikatu. Finean, halako komentarioak egiterakoan, hori da aplikatzen den jarrera. Eta, ondorioz, emakume futbolariak zuzenean homosexualak direla, horren susmoa dago, edo ez heteroak direla, bakarrik heteroaraua eta genero rola desafiatzeko. Horrekin lotuta, emakume askok, bai lesbianak eta baita lesbianak ez direnak, defentsa mekanismo batzuk erabiltzen dituzte, horien artean hiperfeminizatzea edo lesbianak direla ez esatea, hau da, estalian eramatea. Jarrera horiek, nahiz eta defentsa mekanismoak izan, lesbianekiko estigma hori mantentzen dute.

BETE BEHARREKO PROZESUA

Alde batetik, badirudi hobera egin dugula LGBTBI+-en eskubideen onarpenean, baina, oraindik eraso eta portaera desegoki ugari daude. Lan asko dago egiteko, baina zuk nolabaiteko eboluzioa ikusi duzu? Tokiaren arabera da? Gerta daiteke ere herri txikietan guztiok elkar ezagutzen dugunez agian babestuta sentitzea, baina konfort gunetik aterata arazoak egotea? Gaztea naiz, eta atzera begirako eboluzioaz ez dakit asko esaten. Baina bizi dudantetik esango nuke nik txikitzen ez nuela erreferentiarik izan. Orain, badaude emakume ezagunak bere burua lesbiana gisa aurkezten dutela eta ez dutenak estaltzen. Alde horretatik aurrerapen handia egin da. Kanpoan, hein batean, lasai ibil zaitezke, baina baduzu, edo nik behintzat jasan izan dut presio gehigarri bat. Nik ingurune oso ona izan dut, nire inguruan ez dut arazorik izan, baina azkenean LGBTBI+ pertsonak heteroek pasa behar ez duten prozesu bat pasatzen dugu. **Onarpenarena.**

Heteroek ez dute inoiz pentsatu behar: "noiztik naiz ni hetero?" Zergatik? Jaiotzen garenetik heterosexualitatearen presuntzioa ematen zaigulako, kontrakoa erakutsi arte. Hetero ez garen pertsonok gizartean jasotzen ditugun oztipo eta diskriminazioez gain, asimilazio prozesu bat eman behar dugu aurrera: hetero ez zarela ohartzea, eta onartzea. Gero, gainera, gizarteratze prozesu bat egin behar dugu; inguruan esan behar duzu, armario famatutik atera

behar zara. Pertsona bakoitzak bere prozesua izaten du, eta inpaktu ezberdina izango du, bazuetan errazagoa eta besteetan zailagoa. Hau heteroek pasatu behar ez duten prozesu bat da.

Zein adinetan harrapatu zintuen prozesu honek?

Nerabezaro bukaeran eta helduaro hasieran.

Ezagun baten semea gay da, eta urrutiko hiriburu batera ikastera joan behar zenean, hiriburu handietan azkenaldian homosexualen kontra entzuten ziren erasoekin kezkatuta zegoen ama, herrian babestuago zegoelakoan. Askotan entzuten da LGBTBI+ kolektiboko kideendako oso interesgarria dela herrietatik hirietara ateratzea, bestela, agian ez dutelako euren espazioa aurkituko, baina kontrakoa ere izan daiteke, herriak babeslekuak izatea.

Gerta daiteke. Herri txikietan ematen den fenomeno bat kontrol soziala da. Azkenean, denok ezagutzen dugu elkar, eta ezaguna bazara, hein batean laguntzen duzuna babesten duzu. Baina egia da ere agian ez duzula horrenbeste erreferente bilatzeko aukera. Nik behintzat ez dut ezagutzen kuadrilla oso bat lesbiana edo gay direnak, eta Iruñera bazoaz agian baduzu askatasun gehiago, berdinkide gehiago aurkitzeko erreferente gehiago, eta, modu horretan, askeago izateko. Sakanan lasai bizi gara, baina nik uste dut asko euste moduan bizi direla; hau da, gehiegi ez dadila nabaritu. Eraso fisikoa eta irain aldetik seguru bizi gara, ni behintzat, baina bada ere jasaten den presio bat, kontentzio moduko bat.

FORMAZIOAREN BEHARRA

LGTBI+ kolektiboan trans-ek kirola egiterakoan bizitzen duten egoera kritiko bat aipatzen da dokumentalean: kirola egin ondoren, dutxara sartzeko tenorea. Non dutxatu, beraiendako mundu bat da. Tokatu zaizu halako egoera bat gertu izatea? Entrenatzaile edo taldekide gisa, halako kasu baten aurrean zer egin genezake pertsona hori hobeki sentitu dadin?

Aldagelaren gaia guk ere ikerketa taldean bueltaka badarabilkigu, trans pertsona batzuekin lan egiteko. Gai oso konplexua dela iruditzen zaigu, eta esango nuke kirol instalakuntzak, klubak eta bestelakoak ez daudela gai honi aurre egiteko egokituta.

HURRENGO ORRIAN JARRAITUKO DU »

« AURREKO ORRIAN HASI DA

Entrenatzaile eta jokalarari gisa ez dut halako kasurik gertu izan, baina iruditzen zait formazioa eta ezagutza behar dugula, kasu praktikoetan zer egin jakiteko, eta pertsona horiek seguru eta lasai nola sentiarazi jakiteko. Hori da garrantzitsua, kirola beraiendako izan dadila, beste pertsonendako bezala, gozamerako leku bat.

Uste duzu, oro har, gizarte guztiari formazio falta zaigula LGBTI+ kolektiboarekin nola ongi jokatu jakiteko? Beraiei nola zuzendu jakin, beraiendako mingarriak diren esaldi edo leloak detektatzen jakin.. Guztiok, eta bereziki gazteekin lan egiten duten entrenatzaile eta monitoreek formazioa beharko lukete?

Bai, eta etengabekoa. Duela 2 urte Altsasuko Udalak antolatutako formazio ikastaro bat egin genuen, generoaren ikuspegitik landutakoa. Ordubete edo pare bat ordukoa izan zen, ikasturte osorako, eta ordutik ez dugu egin. Ikastaro hori egitea oso pozgarria izan zen niretako, baina aldi berean gutxi xamar iruditu zitzaidan, hau da, motz gelditzen dela. Kontzeptu orokor batzuk lantzeko oso ongi zegoen, baina nik uste dut egunerokotasunean sortzen diren gertakizunetan zer egin jakiteko formazio gehiago behar dela. Behin, entrenatzen ari nintzela, mutil batek beste bati "maricon" esan zion. Niretako hori alerta da. Interbentzioa egin nuen, azaldu nien zer esan nahi zuen hitz horrek eta zein eragin duen. Baina gero, entrenatzaile gisa pentsatzen duzu: egin dudana ongi egin dut? Zer eragin izango du haur horiengan? Benetan balio izango du gerora hitz irain hori ez esateko eta entzuten badute beraiek ere salatzeke? Halakoak nahiko konplexuak dira, eta nire burua formakuntza beharrean ikusten dut.

Futbol partida batean aurkari batek semeari "maricon" esan zion, eta taldekide batek eta berak "hitz hori ez da irain bat" erantzun zioten, iraintzailea harrituta utziz. Zerbait ongi egiten ari garela pentsatu nuen, baina, bestalde, oraindik "maricon" hitza irain gisa erabiltzea sinestezina iruditu zitzaidan, halakoak gaindituta zeudelakoan.

Ez dago gaindituta, argi ikusten da adibide horietan. Ziur aski halako irainak hausnarketa faltatik eta informazio eta formazio



Olaia Eizagirre palista ona da, txapeldun handia. UTZITAKOIA

faltatik datoz. Aipatu duzun kasu horretan bezala, nik uste dut oso garrantzitsua dela konplize izan beharrean, isilik geratu beharrean edo berdinarekin erantzun beharrean, salatzea eta ekintzara pasatzea. Halako eraso homofobo

"TXIKITAN EZ NUEN ERREFERENTERIK IZAN. EGUN, BADAUDE EMAKUME EZAGUN LESBIANAK, ZORIONEZ"

boak ikusten direnean, salatzea, ez geratzea ezer egin gabe. Zure lagun batek beste bati "maricon" deitzen badiu, hari atentzioa deitzea baita ere.

Oraindik ere lesbianek "marichico" fama duzue, edo ikuspegi hori ere

"FORMAZIOA BEHAR DUGU, KOLEKTIBOKO PERTSONAK SEGURU NOLA SENTIARAZI JAKITEKO"

aldatu da? Gay-ek luma dutela ere beste klasiko bat da.

Aurreiritzi horiek jarraitzen dutela uste dut. Emakume bikoteen kasuan, nork erreproduzitzen duen gizona eta nork erreproduzitzen duen emakumea, hori ere beste kontu bat da. Badirudi hetero bikote bat kopia behar duzula. Oraindik lotura hori egiten jarraitzen da, zuzenean. Lesbiana bazara, maskulinoa zara, eta ez bazara, "ba ez dirudizu", halako komentarioak izaten dira. Ematen du halakoa izan behar duzula, estereotipatua. Eta femeninoa bazara, heteroa zara. Irakurketa hori egiten da, eta bada hori ere ateratzeko garaia.

Osteguneko jardunaldietara etorrita, "LGTBifobia Kirolean errealitate bat da" dokumentalaren ondorengo mahai inguruan Iñaki Rubio Mendoz kazetaria, dokumentalean ere ateratzen dena, eta Bea Sever, Nainen adingabe transexualen familien elkarteko kidea izango dituzu mintzake. Dinamizatzaile lanak Amets Castrejana kirol eremuan berdintasun aholkularia denak egingo ditu, aldi berean feminista eta LGBTI+ aktibista denak. Gogotsu, urduri... nola zaude?

Alde batetik bai, niretako esperientzia berria baita halako mahai inguru batean parte hartzea, eta, gainera, jaioterrian. Dokumentalean agertzer animatu aurretik, Sakanan gai honen inguruan ez zela ezer egiten ari pentsatzen nuen. Beraz, dokumentalaren aukera atera zenean, horregatik animatu eta izena eman nuen. Denok ezagutzen dugu elkar, eta presio hori izanda ere, uste dut halako ekimenetan parte hartzea merezi duela.

Jakina! Sakandar guztiak mahai ingurura animatzen ditugu, guztiok LGTBifobia kirolean gaiaren inguruan ikasteko asko dugulako. Hiruron esperientzia ezagutu, egunerokoan agian konturatu gabe esaten eta egiten ditugun gauza asko mingarriak direla jabetu, eta gure porterra aldatzeko aukera izan dezakegu, zuei esker elkarlanean. Eskerrik asko ahaleginarengatik!

Ez da ezer, gogotsu gaude eman zaigun aukerarengatik.

TESIA

Emakumea eta jarduera fisikoa duzu aztergai tesian. Pentsatzekoa da gehienetan emakumeok gainontzeko lanak gure gorputza zaintzearen aurretik jarriko ditugula, ez?

Nire tesia Gipuzkoako emakumeek kirolarekiko eta ariketa fisikoarekiko dituzten azturak, arrazoiak eta oztopoak aztertzen zentratzen da. Gipuzkoan zentratzen da, Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskal Herriko Unibertsitateari ikerketa bat garatzeko eskatu ziolako; horregatik nire tesia hori kokatzen da. Bai Gipuzkoan, bai mundu mailan, gaur egun emakumeek gizonen baino jarduera fisiko eta kirol gutxiago egiten dute. Nire tesia aisialdian oinarritzen da, gero badaudelako lanean egiten den jarduera fisikoa eta garraioan egiten dena. Baina ni aisialdikoa aztertzen ari naiz. Zergatik egiten dute emakumeek ariketa gutxiago? Batetik, jarduera fisikoaren eta kirolaren tradizio maskulinoarengatik; tradizionalki emakumeak ez dira bertan ongi ikusiak izan, eta hortxe arrakala bat dago. Bestetik, eta aisialdiari dagokionez, zaintza lanak eta besteen beharrik asetzeko orduan, besteen beharren atzean kokatzen ditugu emakumeek gure beharrik. Gaur egun ere, oraindik, zailtasun gehigarriak dituzte emakumeek, gizonen ez dituztenak.

Gipuzkoako emakumeak aztertzen ari bazara, zer egiten duzu Kopenhagen?

Tesia egiten ari garenean aukera bat eskaintzen zaigu 3 hilabete egonaldi bat egiteko, gero nazioarteko tesiaren aipamena lortzeko. Kopenhagera etorri naiz hemen emakumeek aisialdirako dituzten oztopoak lantzen dituztelako. Beraz, bertako beste ikerlari batzuen esperientziak eta ikerketak ezagutuko ditut, eta nireak ere beraiekin partekatuko ditut.

Kopenhagerekin ezberdintasuna nabaritzen duzu? Emakumeek han kirol gehiago egiten dute?

Datu zehatzak ez dakizkit, ez baita nire ikergaia, baina kalean ikusita izan dudana sentsazioa da Danimarkako emakumeek askoz ere kirol gehiago egiten dutela. Zaintza lanak ere askoz ere parekatuago daude. Zenbat gizon ikusi ditut haur txikiekin. Deigarria egin zait, eta deigarria egin bazait Euskal Herriari hori ikustera ohituta ez nagoelako da, gurean normalean emakumea ikusten delako zaintza lanetan. Horretarako, nolana ere denak lagundu behar du: lan ordutegiak, amatasun eta aitatasun baimena luzeagoak dituzte... faktore asko dira.



ASTEKOA

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Kontuz gero!!! Euskaraz egiten baduzu, nizardo erantzungo dizut

Nizaren eta Realaren arteko azken partidako prentsaurrekoan gertatu zenak zeresan handia eman du. Euskal kazetariak galdera bat egin zioten euskaraz Imanol Alguazil Realeko entrenatzaileari, eta honek ere euskaraz erantzun. Nizako kazetariak, haserre, "mehatxu" egin zuten esanez nizardo (Nizako okzitanieraz) galderak egiten hasiko zirela.

Egia esan, Nizako kazetarien jarrera ez zen nizardoaren aldekoa, ezta euskararen aldekoa ere, frantsesaren aldekoa baizik.

Frantsesa erabiltzen duten heinean, komunikatzeko gaitasun handiagoa dutelako, eta nizardoari uko egiten dioten bakoitzean, komunikatzeko ahalmen gutxiago dutelako, frantsesa indartzen eta nizardo ahultzen ari dira.

Baina ez dago hain urrutira joan beharrik. Ainhoa Etxenike Senpereko arraunlari gazteari gertatu zaiona ez da Nizan gertatu, Orion baizik.

EGIA ESAN, NIZAKO KAZETARIEN JARRERA EZ ZEN NIZARDOAREN ALDEKOA

Kirolaria Iparraldekoa da eta euskaraz hitz egitean bertakoek "frantses" gisa identifikatzen dute. Bestalde, Orioko traineruko patrioiak euskaraz ez dakienez, arraunlaria gaztelaniaz hitz egitera

behartuta dago, eta egiten duenean "frantses" doinua nabaritzen diote berritro, eta "frantsesa" dela esaten diote, bere euskalduntasuna ukatuz, berak bere burua soilik euskalduntzat duen arren.

Erakundeek ere diskriminazioz jokatzeko dute euskararekin. Europako Kontseiluak Nafarroan euskarari egiten zaion *mobbing*-a salatzen du. Euskarak Nafarroan duen egoera oso ahula da, eta legeak egoera hori areagotzen lagundu du. Leku bat edo pertsona bat ukazio batekin (*eremu "ez" euskalduna*) definitzea Nizako kazetari batekin baino okerrago jokatzeko da.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteartea 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Aniztasuna erein, denok loratu gaitezen!

SAKANAKO MANKOMUNITATEKO BERDINTASUN ZERBITZUA

Kirolak egiten al duzu? Zein emozio edo sentsazioekin lotzen duzu? Zer behar duzu kirola gustura praktikatzeko? Kirolak ongizatearekin harreman zuzena du, maila fisikoan zein psikologikoan. Identitate sortzeko ere tresna baliagarria da, banakakoa zein taldekoa. Taldean kirola praktikatzeko identitate kolektiboa sortzen eta kohesioa lantzen laguntzen digu. Baina horrela al da guztiontzat? Aukera berak al ditugu?

Eliteko LGTBI kirolari bat askatasunez bizi eta adierazi al daiteke? Sexu joera heriotza zigorrarekin zigortuta dagoen herrialdeetan egiten diren lehiaketetara joateko

aukerarik ba al du? Pertsona trans bat sentitutako sexuan lehiatu al daiteke? Zein kategoriatan sartzen da pertsona intersex bat? Nork erabakitzen du eta zein irizpideren arabera?

Agian aurreko adibideak urruti xamar geratzen zaizkigu, baina ingurune hurbilera etorrita... Zer egiten dugu gure egunerokoa? Gaztetxoaren arteko kirol partida batera joatea besterik ez dago marikoi iraina oraindik orain hitzetik hortzera erabiltzen dela entzuteko. Zer dago irain horren atzean? Zer egiten dugu horrelako egoeren aurrean?

Kirolean ematen den LGTBIfobiak ez ditu soilik pairatzen duten pertsonak

kaltetzen; jendartearen dauden estereotipoak eta ideia faltsuak mantentzea sustatzen du. Horregatik, kirola denontzat espazio segurua izan dadin, ezinbestekoa da kirolaren garapenean eragiten duten pertsona zein erakunde guztiok dagokigun ardura hartzea. Ez da nahikoa legeak indarrean jartzea, gero horien jarraipena bermatua ez badago.

Zorionez, badaude formazioak emanez egoera iraultzeko lanean dabilzan elkarteak;

herritar guztiok kirola egiten gozatu dezagun.

Eta zuk zer egiten duzu? **Askotariko sakana, aniztasuna erein: denok loratu gaitezen!**



OBJEKTIBOTIK

EUSKARALDIA @euskaraldia
Euskal Herri guztiko 200dik gora herritar bildu gara Eibarren, Euskaraldia ON! topaketan. Abiatu da #Euskaraldia!

www.guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administratzailea:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



URRIAK 7-11

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

10:15 Prentsaren azalak

10:20 Albisteak eta kirolak

10:30 Hizketan

11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin

14:00 Errepikapena

Hizketan

Urriak 7 Ibai Etxabarri, Nafar Gobernuako basozaina

Urriak 8 Bulkada taldeko Ander eta Peio

Urriak 9 Bertso saioa (Bertsoa.eus) eta Makarrizketak podcast-a

Urriak 10 Aukera gunea Altzasun, profesionalen ahotsak

Urriak 11 Xabier Jauregi de Carlos, Zaskako kidea eta Agenda berezia

GUTUNA

Gero eta aldeko... Integrazioaz ari garenez...

YASMINE KRHS

ITZULTZAILEA ETA IRAKASLEA

Kanarietara oporretan joan den lagun batek aurrekoan WhatsApp taldean bideo bat bidali zigun: patera bat grabatu zuen, hondartzaren ertzean abandonatuta. "Atzo etorri omen ziren, eta den-dena utzi dute dagoen bezalaxe". Irudietan, zira batzuk, plastikozko kutxak, motorra erdian. "Egindako bidaiarekin, oraindik geratzen zaiena..." pentsatu dut.

Auskalo non bukatuko duten, Iberiar Penintsularen bazter batean, Europako hiri gris batean edo Euskal Herrian. Bai, Euskal Herria harrera herri bilakatu dela ez da sekretua, eta Euskal Herriko hiri eta herri askoren panoramaren parte dira errefuxiatu eta migratzaile komunitateak. Batzuek, arazo bat omen da: duela gutxi ateratako egunkari baten artikulu bat bururatzen zait, etorkinen presentziak Iruñeko Alde Zaharreko kale batean segurtasun falta eragiten zuela zioena – *clickbaiten* atzean, irakurleak artikulua erdiraino heldu behar zen konturatzeko ez zegoela inongo proba edota gertakaririk hau baieztatzeko.

Sentsazionalismo hutsa, alegia. Kontua da iritzi arrazistak sinesten dituen publikoa aldatzen denean arriskutsua bilaka daitekeela: betiko erreakzionarioak beti egon dira, eta akaso ez zaigu interesatzen haiekin eztabaidatzea. Aldiz, harrigarria egiten zait ezagunak (eta batzuetan lagunak) hurrena esaten entzuteak: "Hona etortzen dira eta ez dira integratzen. Euskara ez dute ikasten, eta horrela egiten du gora erdaldunen kopuruak". *Alea jacta est*: erruduna bada.

Pare bat gauza: Nafarroako Estatistika Institutua Nastat-en arabera, 2024ko maiatzean argitaratutako datuen arabera, 3 urte edo gehiagoko biztanleen %26,7k euskaraz *pixka bat* daki (hau



da, biztanleria euskalduna %15,1 da eta biztanle euskaldun "hartzailea" %11,6). Alabaina, migratzaileen portzentajea askoz baxuagoa da probintzian (demagun migrante guzietan ez dakitela euskaraz, aurreikuspen okerrenak hartuz). Lupa atera dezagun: Nafarroako eremu euskaldunean jaiotako pertsonen % 74,3 euskaldunak dira, eta eremu ez-euskaldunean jaiotakoak % 2,9. Eta badakigu zein helduleku hartu ohi dute atzerritar komunitateak. Globalizazioa deituriko prozesu hartan, migrazioa saihestezina da, eta etorkinak euskararen normalizazio prozesutik kanpo ezin direla utzi – aipa dezagun berehala ezin direla gehiago "etorkin" deituko, bigarren belaunaldia Nafarroan bertan jaioko baitira.

Lanean hasi berri naizen ikastetxea hizkuntz zentroa da, eta unibertsitateko ikasleek ingeleza, frantsesa eta alemana ikasteko aukera dute. A! eta... gaztelania kanpotarrendako. Euskara ez (ezta bertakoendako, gehien-gehienak nafarrak eta erdaldunak direnak). Nire ezagun batzuei entzundakoak batzuetan asmo onez diruditen diskurtsoak dira, baina era berean autoritarioak eta atzerakoiak dira. Etorkinak gure kultural "integratu" behar direla eta idealizat ezartzen den euskal herrizaletasun profilari erantzun behar diotela esaten dutenak dira. Eta ez, integratzeko, ez gara ari

Euskal Herriko berezko hizkuntza, euskara, ezagutzeaz eta erabiltzeaz, lurralde honetan bizi den mundu guztiak hitz egin beharko bailuke. Integrazioaren ideiaz ari gara, euskal herritasunaren esentziak irudikatuko lituzkeen identitate baten bermatzailetzat jotzen diren imaginarioei lotutako kultura praktika jakin batzuk hartzearekin lotutako ideiaz. Zertara integratu behar dira ba? Ikastetxe ia guztietan erdera ezarrita baita. Frantsesez diogun bezalaxe, "arbolak oihana ezkututzen du".

Pozten naiz ikusten dudanean Nafarroako D ereduan matrikulatzeko kanpaina haur beltz bat, errepresentazioa garrantzitsua baita. Pozten naiz ikusten dudanean AEKko Korrika tresna izan dela Irun eta Hendaia artean migratzaile batzuk pasatzeko, euskararen izenean. Pozten naiz jasotzen ditugunean D ereduan matrikulatzeko eskupaperak udaletxeetatik hamar hizkuntzetara itzulpenak egiteko, arabieraz eta errumanieraz, besteak beste.

Beraz, etorkinak "gure kulturaren" edo "gure hizkuntzaren" atzerakadaren arazoaren iturri gisa aurkeztea, baita ustezko ezkerreko jarreretatik ere, kriminalizazio ariketa bat da, etorkinak harrera gizartera hurbiltze arinago baten aukeratik urruntzen dituen. Integrazioa akaso lehenago izan behar da euskara denona izatea.

Teknoadinekorekin segi, sakontzeko asmoz

Ibarreko hiru Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek orain arte egindako lanaren balorazio positiboa egin dute. Proiektuak 65 urtetik gorakoen nahi gabeko bakardadeari eta ondorioei aurre egin nahi die. Segida emateko gobernuari bilera eskatu diote

SAKANA

Europako funtsekin martxan jarri zuten Sakanako hiru Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek (OGZ) Teknoadineko Landalab, Nafarroan proiektu pilotua dena. Egitasmoa 2023ko apirilean abiarazi zuten eta lastailean despedituko da. Bi arlotan lan egin da. Alde batetik, OGZko gizarte langileen ordenagailuetan Informazio Sistema Integrala jarri da. Gizarte Zerbitzuen eta udal erroldaren makina bat datuz hornitutako sistema horrek aukera ematen die langileei begi kolpean nahi gabeko bakardade egoeran dauden adineko pertsonak identifikatzen.

Lehen argazki bat lortzen da tresna horrekin, baina gero hala den baieztatu beharra dute OGZetako langileek. Horretarako adinekoengana hurbiltzeko prozesuari ekin zioten. Lehenik gutun bidez egitasmoaren berri emanez. Ondoren telefonoz hots eginez eta horien arabera, azkenik, bisita eginez. Proba pilotua zenez, norengana joerabaki behar izan zuten eta hiru talde izan zituzten kontuan: 85 eta 90 urtekoa eta 90 urtetik gorako pertsona, bakarrik bizi direnak, eta mendekotasunik eta ezgaitasunik ez dutenak. Eta, horiekin batera, informazio sistemak identifikatu dituenak arrisku handien izan dezaketelako.

Bestetik, auzozainak daude. Adinekoen komunitateko pertsonak dira, profesionalak (medikuak, erizainak, etxez etxeko arreta zerbitzua, eta abar), zerbitzu eta saltokietakoak (ostalaritza, elikadura, farmazia, eta



Gizarte zerbitzuetako hiru buruak: Juanjo Goikoetxea, Silbia Sesma eta Unai Razkin.

abar), edo bizilagunak, laguntza lanak egin ditzakeenak. Guztien artean zaintza sare bat osatuko lukete, beti ere, adineko pertsonaren nahietan oinarrituta. Horiek aktibatzen eta trebatzen hitzaldiak egin dira, baita trebakuntza eta zabalkunde lanak ere. Proiektuaren sustatzaileek ondorioztatu dutenez, "interesa, beharra eta parte hartzeko prest dagoen jendea badago".

Hiru hilabetetan bakarrik bizi diren 160 adineko identifikatu dituzte, haiekin harremanetan jarri dira eta balorazioak egin dizkiete. Proiektuko langileek aurreikusten dute, urtebetean bakarrik bizi diren sakandar guztiekin harremanetan jartzeko aukera izanen dutela. Adinekoengana hurbiltzeko prozesua mantsoa da, baina balio izan du bakarrik dauden pertsona horien beste behar batzuk identifi-

tzeko, eta horrek OGZn beste programa batzuk martxan jartzea ekarri du.

Egitasmoak bidea egiten badu beste helburu batzuk ere lor daitezkeela uste dute sustatzaileek. Batetik, adinekoak entzuteko espazioak sortzea. Bestetik, zaintza eta laguntasun dinamikak eskainiko dira. Adinekoen eta auzozainen arteko harremana sortuko da, eta haren jarraipena egingen dute gizarte langileek. Aldi berean, gizarte sentsibilizatze lanak egiten jarraitzea beharrezkojo dute. Baita auzozain gehiago batzea ere.

Gonbidapena

Sakanako hiru OGZetako presidentek dira Unai Razkin Iriarte, Silbia Sesma Nazabal eta Juanjo Goikoetxea San Roman. Esan dutenez, "oso positiboki baloratzen dugu proiektu honen

objektua, filosofia eta pedagogia. Mamia eta forma. Identifikatutako baina jorratu gabeko behar baten aurrean, jende askoren bizitza hobetzeko eta duintzeko baliagarria da egitasmoa". Azaldu dutenez, "proiektu berritzaile hori ezartzeko lehen pausoak ematen ari gara, eta lankidetzari esker eman dira. Nafarroako Gobernuari eskerrak eman nahi dizkigu aukera hau posible egiteagatik eta bere konpromisoagatik, eta norabide horretan elkarlanean jarraitzea gonbidatzen dugu", adierazi dute.

Felix Taberna Monzon lehendakari ordeak eta Carmen Maeztu Villafranca Eskubide Sozialerako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria proiektuaren aurkezpenan izan ziren. Han esan zituztenak gogora ekarri ditu hirukoak: "arrakasta faktore asko dituen proiektua da: erakundeen arteko lankidetzak, ekonomiaren arloko gizarte ekimena eta hain beharrezkoak diren sare sozialen sorrera, teknologia eta komunitate zaintza uztartuz". Horiek kontutan izanik, OGZetako buruek Maezturi bilera eskatu diote. Azaldu dutenez, "egindako ibilbidea elkarrekin baloratzeko eta proiektuarekin jarraitzeko borondatea, egokitasuna eta finantzaketa aztertzeko".

Azpimarratzekoak

Hiru presidentek nabarmendu dutenez, "funtsezkoa da agenda publikoan nahi gabeko bakardadea arazo larri gisa jartzea, gero eta jende gehiagoren bizitza duin eta osasungarri baten garapenean eragin handia baitu". Horregatik, "ezinbestekotzat" jo dute eremu publikotik aurre egitea. "ta proiektu pilotu horrek "norabide horretan jarduteko bideak irekitzen" dituela gaineratu dute.

Razkinek, Sesak eta Goikoetxeak esna dutenez, "proiektuak harreman berri bat ezartzen du, dinamika partekatuta, zerbitzu publikoaren eta gure herrietako komunitatearen artean. Kasu honetan OGZ mankomunitateen eta auzozainen artean". Azpimarratu dutenez, Teknoadineko

Datuak*

- **Populazioa:** 24.652
- **65 urte baino gehiago:** 5.580, %23
- **Emakumezkoak:** 2.867, %12
- **Gizonezkoak:** 2.713, %11
- **Bakarrik dauden 65 urtetik gorako pertsonak:** 1.223, %22
- **Emakumezkoak:** 741, %26
- **Gizonezkoak:** 482, %18

Proba pilotuko emaitzak

- **Identifikatuta:** 377
- **Harremanetan jarri dira:** 160, %42,4
- **Balorazio prozesua eginda:** 96, %60
- **Auzozainak:** 25

*IRURTZUNGO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK ARAITZ, LARRAUN, LEKUNBERRI, IMOTZ ETA ITZAKO LAU HERRI HARTZEN DITU ERE.

Landalab proiektua "koordinazio eta lankidetzak publiko-komunitarioan oinarritzen da, eta hori oso positibotzat jotzen dugu, sakondu eta zabaldu beharreko bidea da".

Azkenik, dinamikak jasotzen dituen zenbait printzipio nabarmendu nahi izan dituzte: "zaintzeko eta zaindua izateko esku-bidea, pertsonak eta haien beharrik politikaren publikoaren erdigunean jartzea, haien benetako beharrik identifikatu eta aurre egiteko. Gure burua zaintzen dugu eta gure jendea zaintzen dugu, gauza gutxi iruditzen zaizkigu garrantzitsuagoak".

EGINDAKO BIDEA AZTERTU ETA SEGITZEKO BORONDATEA AZTERTU NAHI DUTE MAEZTUREKIN



EGOKI
Ventanas PVC Leihok

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK

Diseinu soileko lehiak berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea





Josune, Xabier, Izar, Gorka, Eneritz, Ane, Iñigo eta Itziar Aukera gunearen mustute egunean.

Osasun arlokoendako Aukera gunea

Hainbat esparrutako profesionalen kontsultak hartzen dituen espazioa mustu zuten irailaren 27an. Profesionalak senide eta lagun ugariaren babesa izan zuten. Gunearen sustatzaileak eskaintza zabaltzeko lanean ari dira

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU Iñigo Imaz Primek eta Gorka Garcia de Eulatek parrokiarena zen Xabier zentroa erosi zuten. Bi urte pasako lanen ondoren, hura Aukera gunean bilakatu dute. Imazek azaldu duenez, "buruan genuen osasunera eta ongizatera zuzendutako proiektu bat egitea, eta hemen egiteko aukera ikusi genuen". Gaineratu duenez, "jende asko mota horretako lokalen bila zebilen, Altsasun ere; hasten ari zirenak eta zailtasunak zituztenak". Aukera gunean momentuz dauden bost profesionaletatik lauk bere jarduna hasiberri dute.

Imazek nabarmendu duenez, "osasun arlora bakarrik bideratuta egitea erabaki genuen, potentzialtasun handiago zuelako. Iruditu zitzaigun erreferentziailagoa izanen zela. Jendeak jakin du Aukera gunean hainbat

aspektu landu litezkeela. Eta, bestetik, ezartzen diren profesionaleri ere emanen dielako, positiboa izanen da: talde lana, sinergiak..." Bi sustatzaileei gusatuko litzaieke Aukera gunean Sakanan edo Altsasun ez dauden zerbitzuak, lantzen ez diren patologietako profesionalak ezartzea, "jendea beste norabait joan behar ez izateko". Ahalegin horretan ari direla jakinarazi du Imazek.

Sustatzaileek "luzera begirako planteamendua" egin dute. "Garrantzitsuena da jendea etortzea, osasun arloko profesionalak

"OSASUN ARLORA BAKARRIK BIDERATU GENUEN, POTENTZIALTASUN HANDIAGO ZUELAKO"

etortzea eta bidea egiten has daitezela. Biek nahiko lukete "bizpahiru urtetan martxa betean egotea eta erreferentziarako gunea bilakatu" izana. "Printzipioz, harrera ona izan du. Nahikoa gela beteta ditugu. Bi gelditzen dira libre, eta egunka beste bat alokatzen dena. Horretan lau egun gelditzen dira erabilgarri".

Espazioak

Larrainbide kaleko 5. zenbakian dago Aukera gunea. 380 metro karratuko azalera du. Ekialdeko zatia Biat Bat elkarteak hartu zuen (2023ko martxoaren 10an mustua). Erdigunean dago Aukera gunea, osasun arloko profesionaleri eskainitakoa da. Eta horri itsatsia dago Aukera aretoa. Hasiera batean talde lanerako espazio gisa aurreikusitako zena egun gimnasio bilakatu da. Erabilera anitzeko gela da. Eta hura pasa-

ta, biltegia duen gela bat egonen da. Guztira 13 eta 30 m² arteko hamaika gela ditu espazio mustu berriak. Eta bakoitzean osasun profesionalak behar duen guztia dago. Espazio komunak dira harrera, office-a eta komunak dira.

Aukera gunean espazio bat alokatzeko osasun arloko profesionala izan beharra dago. Gelak alokatzeko gutxienezko gehieneko eperik ez dago. "Gure nahia da jendea hemen lanean hasi dadila eta jarraipena izatea. Eta joatea nahi badu, joanen da. Sartu direnak alokatzeko haien intereseko epea aukeratu dute". Espazioaren aukeragunea.com webgunean dago sustatzaileekin harremanetan jartzeko bidea. "Gu gainean egonen gara, baina gure egitekoa honaino iritsi da. Aukera gunearen garapena bertako profesionalak egingen dute", gaineratu du Imazek.

Galderak

1. Zergatik egin zenuen Aukera gunearen alde?
2. Zer eskaintzen dizu?
3. Zein zerbitzu eskaintzen dituzu bertan?



"Oso zaila zen guretako inbertsio handietan pentsatzea"

**ANE CANTERO CRESPO
ETA XABIER
MAZKIARAN SEGURA
IRAULI**

1. X. Alde batetik, azpiegitura berriak dituela ikusi genuen. Bestetik, oso ongi kokatuta dago. Gainera, gimnasio gisa erabiltzeko aretoa du. Guk gela eta gimnasioa erabili behar genuenez, horregatik aukeratu genuen gunea.

A. Argi geneukan bion arteko proiektu honek ekografoa eta fisioterapiaren alorreko hori guztia izateko espazio bat behar zuela.

X. Eta mugimenduari begira gimnasioa behar genuen. Errapatazioak edo edozein patologia tratatzeko.

2.

A. Nire lan espazioa batez ere gimnasioa izanen da. Bertan, alde batetik, entrenamendu funtzionala eskainiko dut, osasuna duen pertsoneri zuzenduta dago. Horren bidez bizitzarako entrenatuko da. Eta, bestetik, entre-

namendu pertsonala emanen da. Hori bideratuta dago behar jakin bat duten pertsonen.

X. Ni gelan eta gimnasioan egonen naiz. Batetik, paziente bakoitzaren fisioterapia diagnosis lortzen saiatuko naiz. Bestetik, banakako planak eginen ditut, gehienbat ariketa fisikoa.

3. A. Irauli bion proiektu bat da, duela hilabete batzuk hasi zena. Fisioterapia eta entrenamendua, edo fisioterapia modu integralago batean lantzen duen proiektu bat da. Guretako oso aukera ona da. Oso zaila zen guretako inbertsio handietan pentsatzea. Honek hori alde batera uzteko aukera ematen zigun. Oso aukera ona ikusi genuen. Beraiek bidea nahiko erraza egiten ari digute, laguntza handiak eskaini dizkigute. Pixkanaka hasiko gara.

X. Ilusio handiz. Urduritasun pixka batekin. Dagoeneko hasi gara, beraz, topera gaude.



"Hazteko oso aukera polita da"

ENERITZ MUJIKAZUASTI
DIETISTA

1. Aukera berri bat ematen du. Lehendik Altsasun lanean hamazazpi urte egon naiz. Gazteen ere hasi nahi nuen. Eta energia berriak probatu nahi nituen. Eta iruditzen zait horretarako leku aproposa dela. Toki alai, argitsua eta tratamenduak egiteko oso toki egokia da.

2. Erosotasuna, alaitasuna eta taldea eskaintzen dizkit. Hori nahikoa da. Osasunaz hitz egiten ari garenean, elkarlana garrantzitsua da. Bostek begi bakarrak baino gehiago ikusten baitute. Hazteko oso aukera polita dela uste dut. Egunean eguneko, eta

disfrutatuz. Nik uste denondako ona izanen dela.

3. Batez ere saiatzen naiz jendeari elikaduraren inguruko aholku gomendagarriak ematen. Gainera, pertsonari osotasunean garrantzia ematen diot. Jendea hona etortzen denean asko gustatzen zait jendeak hausnartzea. Baita hainbat baliabide ematea. Horretarako beti prest nago. Beraz, pozik.



"Elkarlanerako aukera argia da"

IZAR PAROT ARRAZUBI
LORATZEN PSIKOLOGIA

1. Oso proiektu polita iruditzen zitzaidan. Nire proiektuarekin bat egiten zuen: zerbitzua Iruñetik Sakanara ekartzea. Iruñeko utzi eta hona etorri nintzen. Hemen lanean lehena izan nintzen, ia-ia obretan zirela, bospasei hilabete daramatzat bertan. Toki oso polita iruditu zitzaidan. Politia, konfiantzazkoa, eta honekin aurrera.

2. Ez da bakarrik nire zerbitzua Sakanara ekartzea. Beste profesional batzuekin elkarlanean aritzeko aukera ematen du. Behar izanez gero, beste batengana bideratzea. Elkarlanerako aukera argia da. Gure artean gero eta gehiago ezagutzen ari gara eta bide beretik joaten garen edo ez ikusten ari gara. Uste dut, baietz, elkarlana posible dela.

3. Psikologoa naiz, eta pertsona helduekin psikoterapia egiten dut, online eta aurrez aurre, jendearen buru osasuna hobetzeko asmoz. Kontsultaren izena Loratzen psikologia da, eta hemen loratzen saiatzen ari naiz. Aurkezpenaren helburua da jende gehiagok ezagutzea eta, ahal den

heinean, martxan jartzea, gero eta jende gehiago izateko, bestela ez dira kontuak ateratzen (barrez).



"Lagun altsasuar baten bidez izan nuen ongizatearen inguruko proiektu honen berri"

ITZIAR TELLETXEA
IGUZKIAGIRRE
TERAPEUTA HOLISTIKOA.
TXINAKO MEDIKUNTZA
TRADIZIONALA

1. Orain arte Lesakan egon naiz kontsulta pasatzen. Aukera hau sortu da eta hementxe nago, Altsasun. Egun bat han, bestea hemen halaxe ibiliko naiz. Lagun altsasuar baten bidez izan nuen ongizatearen inguruko proiektu honen berri.

2. Lehendabizi, Lesakatik ateratzea eta ezagutzen ez dudana jendea tratatu ahal izatea. Lesaka moduko herri txiki batean guztiok elkar ezagutzen dugu. Horrek tratamenduan muga batzuk sor ditzake, aldeko edo kontrako gauzak sor daitezke. Banuen gogoia handik atera eta jende berriarekin terapeuta paziente harreman hori lantzeko. Nire ikasketetan psikologia eta elikadurak arreta piztu didate. Gunean gauden arteko harremana garatzea asko interesatzen zait.

3. Txinatar medikuntza eta akupuntura ikasi nuen. Lau urteko ikasketak dira. Txinako unibertitate batekin akordioa

duen Iruñeko zentro batean egin nuen. Gorputza ulertzeko modu desberdina du, orain arte hemengo medikuntzarekin ezagutu ez duguna. Gorputza eta psikologia lotzen ditu, tratamendu integralagoa egiteko. Txinako medikuntzaren teoriatik abiatuta, akupuntura eta landareen bidez saiatzen naiz gure baitan dauden desoreka horiek pixka bat orekatzen.



"Altsasun ez dago horrelakorik, eta beharrezkoa zen"

JOSUNE AZPIROZ IMAZ
BIAK BAT ELKARTEA

1. Uholdeen ondoren, guretako momentuan aukera bakarra izan zen, egoitza honetan gure proiektua jarraitzeko. Orain sortu duten beste espazio hau ikusita, bakoitzak bere proiektua aurrera emateko aukera paregabea da. Altsasun ez dago horrelakorik, eta beharrezkoa zen.

2. Gure proiektua jarraitzeko espazioa. Eta beste batzuekin elkarlanean aritzeko aukera, aldamenak gara, proiektu gisa. Halako profesionalak ondoan izanda, oso erraza da beraiekin elkarlanean aritzea.

3. Animaliekin lagundutako esku hartzeak, terapiak, hezkuntza eta aisialdi programak eskaintzen ditugu behar bereziak edo aniztasun funtzionala duten pertsonendako. Buru osasun arazoak dituztenendako ere. Natura, terapia baratza gehitu diegu eskaintzari. Natura eta animalien bidez pertsona, natura eta animalien ongizatea hobetu nahi dugu.



Udalak kale bihurtu nahi duena.

Udalak errepide zati bat kale bihurtzea nahi du

Txunkaiko errotonda eta Ibarrea terapia zentroaren arteko tartea hain zuzen ere

ALTSASU

San Joan kalea Iparraldeko autobia (A-1) lotzen dituen NA-7184 tokiko errepidea da. Bide berriak Txunkai auzoko errotondaraino iristen da, eta handik Ibarrea terapia zentroraino. Eraikin horretatik industrialdeko sarbideko zubira arte zatia Altsasuko Udalaren kale bat da. Udalak Nafarroako Gobernuari eskatu dio errotonda eta zubiaren arteko errepide zatia bere esku geditzea, kale bihurtzea, 250 bat metro. Jabetza hori eskuratuta, udalaren asmoa litzateke berri- ur behar den ur biltegiaren eta herriaren arteko ur sarea kale horretatik eramatea.



KOLABORAZIOA

Sakanako lexia konposatuak (VII)

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Aurrekoekin jarraiturik eta aipatu lexia konposatuak hitz bakar batekin baino gehiagorekin sortutako lexiko mailako burutzeak direla gogoratuz, hona jarraian horietako beste hamar.

Berariaz egin. Sakanako euskal hizkera gehienetan erabiltzen zen, nahita edo apropos zerbait egin adierazteko. *Gauzoik ez zizkiyok nei be atiatzen, berayes eitten zittuk!* (Gauza horiek ez zaizkiok nahi gabe ateratzen, berariaz egiten ditik!). Gaztelaniako "hacer a posta", "adrede" adierazten du.

Beso-lehian ibili/egon. Burundan eta Aranatzan erabili izan da bereziki. Lehian aritu. Beso-lehiak, uztarrarian loturik doazen abereen elkarrekiko bultzatua aldia adierazten du. Horrela arituz gero, ez da gauza onik lortzen. Kandido Izagirrek (1967) horrela jaso zuen Altsasun: *Besaleiya kentzeko ganaubeiri. Besaleiya da alkarretziten dia, alkarroola, bulkau alkar da ezin zan ailau, bota iten zian.* (Besolehia kentzeko ganaduei. Besolehia da elkar etzaten dira, elkar horrela, bultzatu elkar eta ezin

zen ailegatu, bota egiten ziren). Ondorengo, Etxarri Aranazko hizkerakoa dugu: *Beye, ze esaten ttuk! Aspaldiyeen ez ttuk yondu besaleyen guu etxeko iriyek!* (Baina, zer esaten duk! Aspaldian ez dituk egon beso-lehian gure etxeko idiak!). Gaztelaniako "en disputa continua" adierazten du.

Bixi-bixi egin. Laztandu, ferekatu. Eskuarekin beste norbaiten gorputz atalen bat modu leunean igurtzi. Karta joko bateko zatia era bada, eskuaren binperra gora begira jarririk mahaian, bertan egitekoa adierazten duena, ateratzen den karta motaren arabera: *atximixka* (ezpatak), *bixi-bixi* (kopak), kurrin-kurrin (urreak) eta *plax-plax* (beltzak). *Aur guziek eskertzen ñe guatzien luek artu beño len bixi-bixi eittie.* (Haur guztiek eskertzen dinatue ohean loak hartu baino lehen bixi-bixi egitea). Kandido Izagirrek (1967, 67. or.) honela jaso zuen Altsasun eta adibide horixe bera dago jasoa *Orotariko Euskal Hiztegia* ere (OEH hemendik aurrera): "bixi-bixi ein 'hacer cosquillas'".

Bizi asmo! Ongi esan behar! Lehena, norbait



aspaldian ikusi gabe izanik, aurrez aurre izandakoan eta zer moduz dagoen adieraziz ea bizi den galdegiterakoan, normalean ematen den erantzuna da esapide hau, Etxarri Aranatzan, Ergoienan eta Arbizun gutxienik. Bigarrena orokorragoa da erabilera eremuari dagokionez. *-Joño! Aspaldiko! Bizi gaitun, o? -Bizi asmo!* (-Koño! Aspaldiko! Bizi gaitun, edo? -Bizi asmo!). Gaztelaniko "vamos tirando" bezalakoak dira.

Boilo bila ibili. Aranatzan erabiltzen da bereziki. Arazoak bilatzen ibili, haserretu nahian edo, besterik gabe, zirikatzen. *Baabil bollo billen ta azkeniako artuko ttuk!* (Bahabil boilo bila eta azkenerako hartuko dituk!) *Neskatoa! Baziruin ezin yeizela geldiik eta ixilik yon. Beti ago bollo billen!* (Neskatoa! Bazirudin ezin haizela geldirik eta isilik egon. Beti hago boilo bila!) Gaztelaniako "andar buscando jaleo" esamoldearen parekoa izanen genuke.

Denaz ere. Hau ere Aranatzan batez ere, baina dirudienez Arakilen ere erabilia izan da. Hala eta guztiz ere, dena dela. *Danas ee, azken betien, asieran pensatu giñuben moduben ein berko diau!* (Denaz ere, azken batean, hasieran pentsatu genuen moduan egin beharko dugu!). OEHn horrela dator: ("Denez ere. Danez bere (V,...), aun según es, aunque sea poca la diferencia A. (AN-araq), a lo sumo"). Gaztelaniaz "de cualquier forma/modo, a lo sumo".

Dal-dal egin, Dal-dalketan egon, Dal-dalekoa eman, Dal-dalariarekin egon/ibili,

Dal-dalak jo. Sakana osoan erabiliak izan dira. Dardara egin, dardarak jota egon, dardara eman. Izagirrek (1967, 81. or.) honela jaso zuen Altsasun: *tatalkan doo "está temblando"*. Urdiainen ere, daldalai jaso genuen SHDn. *Daldalketan yondu giñuban atzo.* (Dardarka egon gintuan atzo). *Kriston daldaleyaki ziillek azkenontan.* (Kristoren daldalariarekin zabilek azken honetan) Gaztelaniaz "temblar", "estar tembloroso".

Demontrearen (izena), Demonioaren (izena). Graduatzaila moduan erabiltzen da, izenak edo izenondoak adierazitakoaren maila handituz. *Demonrien aize fuertie ziillek gaur goizien!* (Demontrearen haize indartsua zabilek gaur goizean!) *Demonien jeniyeuki agertu zikieguk etxeko atayen!* (Demonioaren jenioarekin agertu zaiguk etxeko atarian!) Gaztelaniako "¡... de la hostia!" esapidearen parekoa da.

Direnak eta ez direnak (esan/aditu). Guztia, ezer utzi gabe, denetiz. Ez dela ezer ahaztu adierazteko erabiltzen da, baina, gehienbat eztabaidatzerakoan, azalpen osoa eman dela edo propio ezer gordetu gabe hitz egin dela. Bestalde, badu zentzu peioratiboa ere, eta "kristorenak" esan adierazten du horrelakoetan. *Damutu zikiyoban Joxeeki sartzie, dienak eta ez tienak esan zizkiyoban arrek!* (Damutu zitzaioan Joxerekin sartzea, direnak eta ez direnak esan zizkioan hark!). OEHn horrela: "Direnak eta ez direnak. a) Todo; todo y más."

Ederra bota / esan / egin. Sakanan ezeze, Mezkitz aldean ere erabiltzen zuten.

Ederra sartu. Ironiaz erabiltzen da, kontrakoa adieraziz. Hiru aditzekin, espero ez den mailako zerbait esan edo egin dela adierazten da, baina azken aditzarekin, aldiz, ziria sartu, enganaitu, adierazteko erabiltzen da. Perpetua Saragueta mezkiritarraren eskuidatzietan (Iñigo, 2011) ere horrela ageri da. EHN 'ederrak eman'. *Ederra ein dek! E niyan alakoik igandi espia!* (Ederra egin duk! Ez nian halakorik higandik espero!) *Ai, bai inoxentiek zariela berangana arrimetzten! Ederra bota duuzubie!* (Ai, bai inuzenteak zaretela berarengana arrimatzen! Ederra bota dizuete!) *Biletu gindue sei tokietan seurik, baño ederra egin gindue!* (Bilatu genuen sei tokietan segurik, baina ederra egin genuen!). Gaztelaniaz "hacerla buena, meterla clavada" esanen lukete.

Hizpidea eman/jarri, Hau egiten duenak berari buruz gaizki hitz egiteko aukera edo arrazoia ematen du. Sakana osoan entzun zitekeen. Norberaren jarrerarekin edo esanarekin hitz egiteko aukera eman gainerakoei. Normalean zentzu peioratiboa izaten du. *Iguel duk noiz, iguel duk nola, beya zuek beti jartzen duzube izbidia erriyen!* (Igual duk noiz, igual duk nola, baina zuek beti jartzen duzue hizpidea herrian!) *Ez takak fundamentu askoik, beti izbidie ematen!* (Ez daukاک fundamentu askorik, beti hizpidea ematen!). Gaztelaniaz "dar que hablar", zentzu peioratiboan. Satrustegik *Luzaideko Hiztegian Elepidea eman* (1963-64: 263) jaso zuen adibiderik gabe, "habladuría" esanahia ematen diola.

DUELA 25 URTE...



Bertso liburuxka

Sakanako Bertso Eskola ezagutarazteko eta bertsozaletasuna bulkatzeko argitaratu zuten *Ari garela...bertsotan*. Eskolan Josu Etxanobe, Aritz Etxeberria, Joseba Andoni Beltza, Josema Leitza eta Eneko Lazkoz zeuden. Haiek bertso bidez ibarraren eta sa-

kandarren deskripzio xelebreak jaso zituzten liburuxkan. Pablo San Romanen ilustrazioez lagunduta zeuden bertsoak. Aurretik, eskolakoek tabernetan bertso paperak utzita zituzten eta harrera ona izan zuten.

Iritsi da turbina martxan jartzeko baimena

Turbina jartzeko lanak aspaldi eginak zeuden, hura argindar sarera lotzeko baimena jasotzea izugarri luzatu da. Udalak energia mendekotasuna saihesteko hartutako neurria da eta bide horretan pausoak ematen segi nahi du

UHARTE ARAKIL

Argindarra sortzeko, Uharthe Arakilgo Udalak ur biltegiaren turbina eta eguzki plakak jarri zituen. Haiek sarera konektatu eta argindarra sortzeko Iberdrolaren baimena irailaren 30ean, astelehenean, jaso zuen. Jakina, udalak berehala eman dio energia azpiegiturak martxan jartzeko kixketari. "Luze joan da, baina poz-pozik" zegoen Txomin Uharthe Baleztena alkatea jasotako albistearekin. Izan ere, lanak duela 21 hilabete despeditu zizuten eta bitarte horretan udalak baimenak lortzeko lanean ibili da. "Partekatutako kontsumoa duten turbinen instalazioe-



Ur biltegiaren ondoan egindako etxola txikian dago turbina. ARTXIBOA

kin hori pasatzen ari da", jakinarazi du. Turbinak eta eguzki plakak sortutako elektrizitatea autobiatik hegoaldera dauden kaleetako argiteria publikoan, igerilekuan, Itxesi taberna-jate-txean eta udalak Errekabitar kalean duen eraikinean erabiliko da. Udalak energia kontsumo gehiago dituenek, energia burujabetzaren bidean pauso gehiago eman nahi ditu. Bide horretan udalaren hurrengo neurria da eskolan biomasa galdara eta ikastetxeko teilatuan eguzki plakak jartzea.

Azpiegituraz

Ganbeletako iturburutik heldu den goi hornidurako hodian bertan argindarra sortzeko mikroturbina jarri da Itsasgainen, ur biltegiaren ondoan eraikitako etxola batean. Urak 220 metroko desnibela jaisten du. Halakoetan uraren presioa erreduzio balbulen bidez txikitzen da, baina ubertearrek mantentzea erabaki zuten, argindarra sortzeko. Segundoko zortzi litroko emaria du iturburuak. Ur biltegiaren gainean eguzki plakak daude. Bata eta bestearen artean guzti-

ra 24 KW sortzeko potentzia du, 13 KW turbinaren bidez eta 11 KW eguzki plaken bidez. Urtean 103.500 kW orduko sortzeko ahalmena du instalazioak.

Lanek 136.330 euroko aurrekontua izan zuten. Hori finantzatzeko Uharthe Arakilgo Udalak Nafarroako Gobernuaren 2022ko aurrekontutik 85.000 euro jaso zituen, EH Bilduk aurkeztutako emendekin bat onartu baitzen. Udalaren kalkuluen arabera, urtean 21.000 euro inguru arrezertuko ditu. Beraz, inbertsioa sei urtean amortizatuko du, bitan udalak jarritako dirua kontuan hartzen bada.

Bestetik, udalak Errekabitar kalean duen eraikinera sartzeko arkitektura oztopoak kendu eta arranpa egin du. Gainera podologoaren kontsulta egokitzeko lanak egin ditu. "Asmoa da poliki-poliki auzolan eta obra txikien bidez eraikin hori berri-zea: komuna, instalazioak, gainontzeko gelak. Erabilera anitzeko leku bat izanen da: gimnasia egiteko, gazteei leku bat emateko... Correos han dago, goiko pisuak erabilera du", jakinarazi du Uhartek.

Sunsundegui enpresa hornitzaile bat itxiarazi du

Zor ziona ez ordaintzeagatik ibarreko enpresa batek itxi du. Sunsundegui hornitzaileei 8,9 milioi euro zor die

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Lan karga izan bai, baina finantza egoera makurrak Sunsundegui zuzendaritza aldi baterako enplegu erregulazio espedientea ezartzera eramane du. Finantza egoera oker hori, ordea, ez da autobus ekoizlerra mugatzen. Harendako hainbat enpresa hornitzailek lan egiten dute. Kasuaren arabera, enpresa horien bezero nagusia edo beste bezero bat gehiago da Sunsundegui. Baina guztiei autobus ekoizleak dirua zor die. Batzuk zorra handitzen ari zela ikusita materiala eramane eta berehala kobratzea exijitu izan diote azken hilabeteetan. Enpresa txiki eta ertainak izanik, ekonomia balantzean dagoen diru falta horrek kalte handia egiten die enpresa hornitzaile horien etorkizunei. Sakanan gutxienez hamaika enpresa dira Sunsundeguien zordunen

artean daudenak. Guztiek gutun bat jaso dute zeinetan jakinarazten zaien, banaka, bilera batera deituko dituztela. Enpresa hornitzaileen kudeatzaileen susmoa da, atzera ere, Sunsundegui haiekin duen zorraren zati bat barkatzea eskatuko diela.

Deialdi horretara jarduerarik gabe eta langilerik gabe iritsiko da ibarreko enpresa hornitzaile bat. Sunsundegui dirutza zor dio. Zuzendaritzan badakite Sunsundegui erosteko interesa duela bakarren batek, baina ez dakitenez noiz izanen den hori, hilabeteak izan daitezkeenez, enpresa hornitzaile horrek momentuz atek ixtea erabaki du. Beti ere, ahal dela, lantegia berriro martxan jartzeko atea zabalik utzita. Baina bitartean 40 bat langile langabezian geldituko dira. Bitartean, Sunsundegui negoziazio epea dute.



2024/10/13

EUSKAL
HERRIKO

ERDIGUNERA IBILALDIA

ANTOLATZAILE ETA LAGUNTZAILEAK





Zurrumurrueen kontrako sari banaketako saridunak.

Aurreiritzien kontrako kontakizunak sarituta

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak antolatutako lehiaketaren bosgarren edizioan saritutako lanak liburuxka batean argitaratu dira. Horiek ikastetxe eta liburutegietan eskuragai egonen dira

Alfredo Alvaro Igoa

UHARTE ARAKIL / SAKANA

Uharte Arakilgo udaletxeko safeiak edo goiko ganbarak Zurrumurrueen kontrako ipuin lehiaketako sari banaketa hartu zuen. Lehiaketaren bidez elkarbizitzari modu ezkorrean eragiten dieten jatorri anitzeko pertsonen inguruko zurrumurruek eta estereotipo ezkorrei aurre egin nahi zaie. Horiei kontrajarri nahi die kulturartekotasuna eta kohesio soziala, bazterkeriaren kontrako jarduna, baita arrazakeria eta xenofobiaren

kontra jardungo duten pertsona eta entitate konprometituak sortzea eta sendotzea ere.

Horiek guztiak izan zituen epai-mahaiak kontuan sariak ematera-koan. Egiteko horretan Zurrumurrueen Kontrako Nafarroako Sareko, Zaskako, kideak izan ziren. Haietako bat Xabier Jauregi De Carlos izan zen. Aderazi duenez, "oso ipuin politak dira eta, egia esan, irakurtzera gonbidatzen zaituztet". Jauregik gaineratu duenez, narrazioek "aniztasuna beste modu batera erakusten dute. Horrek eragiten du aniztasunarekin harremana izatea, beldurrik ez izatea eta gure aurreiritziak aldatzea. Hori liburuxkan azaldu dute". Lehiaketarako hamazazpi lan onartu zituzten, beste batzuk epezkantop aurkeztu edo baldintzak betetzen ez zituztelako baztertu zituzten.

Sari banaketan Begoña Zestau Baraibar zerbitzuko gizarte hezitzaileak, Uharte Arakilgo alkate Txomin Uharte Baleztena, Anitzartean batzordeko presidente Naroa Anso Iriarte eta Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarte Sergio Goikoetxea Berjera izan ziren. Irabazleek elkarteke establezimendutan gastatzeko diru txartela eskuratu zuten. Haiek gastatzeko azaroaren 30era arteko epea dute. Gainera, saritutako ipuinak jasotzen dituen liburuxka jaso zuten.

"Zurrumurrueak benetakoak balira bezala hartzen ditugu"

XABIER JAUREGI DE CARLOS ZASKAKO KIDEA

Pertsonen inguruko zurrumurruek eta estereotipo ezkorrek zabaltzen dira gizartean, are gehiago pertsona horiek beste nonbait jaino badira. Bazterkeria, arrazakeria, xenofobia edo aporofobiatik sortutako usteen kontra aritzen dira Zaskakoak. **Dirulaguntza guztiak migratzaileendako dira?**

Baina non, non entzun duzu hori? **Hala esan dit lagun batek eta, gainera, Interneten hala irakurri dut!**

Hor dago leku askotan. Eta zuk zer uste duzu honen inguruan? **Irakurri dudana sinesten dut.**

Hori esaten dute. Kolokan dagoen beste zurrumurruek dio lana kentzen digutela.

Hori denok esaten dugu!

Baina norbaitek ezin diogu lana kendu eta laguntza jaso. Laguntzak, normalean, lanik ez daukanak jasotzen ditu. Beraz, zurrumurruea bakoitza nondik nora doan ikasi behar dugu, eta zergatik egiten den.

Antzerkia utzita, Xabier, orain arte egin duzun hori zer izan da?

Gure gizartean zurrumurruek pila daude. Alde askotatik iristen dira. Entzuten ditugu eta benetakoak balira bezala hartzen ditugu. Askotan ez dugu betarik hartzen gure buruan horien inguruan hausnartzeko, nondik datozen pentsatu edo beste batzuekin hitz egiteko. Erraztasunez esaten ditugu. Horrek beste pertsona batzuk diskriminatzen ditu.

Zer da zurrumurrue bat?

Informazio bat da. Haren atzean dauka estereotipo bat eta aurreiritzi bat. Estereotipoa da guk pentsatzen duguna. Eta aurreiritzia da sentitzen duguna. Guk gure bizitzan zurrumurrue asko aditu ditugu, eta gelditzen zaigu. Beraz, hala esaten ditugu.

Zer eragiten dute zurrumurrueak?

Zurrumurrueak, normalean, pertsonak deshumanizatzea lortzen dute. Pertsonak pertsona gisa ez ikustea, talde bateko kide gisa baizik. Normalean, pribilegioak dauzkagunok zabaltzen ditugu zurrumurrueak. Pribilegio gutxiago dauzkagunok zurrumurruearen itxura ematen diogu. Besteak ez ditugu pertsona bezala ikusten, eta gure artean polarizazio bat sortzen da.



Eta hor gatazka bat sortzen da. Gure gizartean zurrumurruek gure arteko gatazkek sortzen dituzte.

Zurrumurrueen kontra egin beharko da?

Lehendabizi lanketa pixka bat egin beharko du bakoitzak, jakiteko nortzuk garen, zein zurrumurrueak dauden, nondik gatozen, pribilegioak dauzkagun edo ez...

Hori nola egiten da?

Guk prestakuntza saioak ematen ditugu Nafarroan. Horietan lantzen dugu, lehendabizi nor garen eta nola erlazionatzen garen beste batzuekin. Eta zurrumurruea jasotzen dugunean, nola buelta eman ahal diogun beste motatako diskurtso batzuk eraikitzeke, gure estereotipo horiek pixka bat aldatzeko.

Horrek gizartean zere onuraren bat badauka?

Elkarbizitza. Eta ez hori bakarrik, baizik eta gizarte bezala

Sarituak

Euskaraz 16 urtetik behera

1. Tania Otero Madinabeitia:
Betirako zauriak
2. San Migel eskolako
LHko 1. eta 2. maila:
Bero zegoen giroa, oso bero

16 urtetik gora

1. Aiora Larraza Salinas:
2.000 erle espezie
2. Ane Miren Iruretagoiena:
Neure buruari botatakoak
3. Iñigo Herrero Rioja:
Zarra-zarra

Gaztelaniaz 16 urtetik behera

1. Ayman Missaoui Oulalit:
Michael
2. Oussama Missaoui:
Oulalit Amari
3. Liman Haddadi Bourzik:
Anna

16 urtetik gora

1. Nekane Vilariño:
Un mundo de colores y de sabores
2. Maria Jose Cordoba Garcia:
La extranjera
3. Izaskun Salinas Burillo:
Del aleteo de una mariposa a la invención del ajedrez

eboluzionatzea. Gure historian zehar kultura desberdinetako jendea elkartu gara eta poliki-poliki eboluzionatzen joan gara. Beraz, horrek gure elkarbizitza eragiten du, gure herrietan edo lekutan anitzagoak eta askoz hobeagoak izatea dakar.

Bakarren batek prestakuntza saioan interesa balu?

Sakanako Mankomunitateko Aintzartean kulturarteko zerbitzuarekin harremanetan jar dadila eta prestakuntza saioak egitea proposa dezala. Egin izan ditugu Iruztunen eta Lakuntzan saioak. Orain Aintzarteanekin zerbait gehiago ateratzen den aztertzen ari gara. Nafarroako Gobernuarekin hitzarmena dugu eta behar bada, hortik ordutxo batzuk sar litezke. Baina horretarako zerbitzuarekin hitz egin behar dugu.

FESTAK

ETXARRI ARANATZ

FERIAK

URRIAK 4 Ostirala

00:00 Mataperros taldearen kontzertua, gaztetxean.
EGAK antolatuta.

URRIAK 5 Larunbata

12:00-15:00 Txoko lasaia, liburutegian: aniztasun funtzionala duten edota zentzumen pertzepzioan zailtasunak dituzten pertsonen beharrei erantzuteko sortutako zaratarik gabeko gunea.
12:00 Xake partidak aldi berean, Santi Gonzalez de la Torrerekin.
Etxarriko erraldoi eta buruhandien konpartsa.

16:00-20:00 Etxarriko Animalien erakusketa.
16:30-19:00 Jolas erraldoiak eta buztin tailerra.

17:00 Talo tailerra, Saralegitarrekin.

17:00-22:00 Txoko lasaia, liburutegian: aniztasun funtzionala duten edota zentzumen pertzepzioan zailtasunak dituzten pertsonen beharrei erantzuteko sortutako zaratarik gabeko gunea.

18:30 Herri Kirolak: Sakanako Aizkora Eskola, harrijasotzaileak, aizkolariak binaka.

19:30 Auzatea Karriketu elkartearen eskutik.

20:00 Salbia, elizak antolatuta.

20:00-22:00 Trikiteens taldearekin dantzaldia.

22:00 Zezensuzkoa.

00:00-01:30 DJ Deabru eta txupito

bereziak, gaztetxean.

EGAK antolatuta.

00:00-03:00 Trikiteens taldearekin dantzaldia.

URRIAK 6 Igandea

10:00-14:00 Ekoizle eta artisauen azoka.

11:00 XLIV. Mendira Joan etorria, Udaberri elkarteak antolatuta.

Dorsal banaketa: 09:00etatik 10:00etara.

Sakanako Artzaien XX. Gazta Txapelketa.

11:15 Auzatea Larrañeta elkartearen eskutik.

12:00-15:00 Txoko lasaia, liburutegian: aniztasun funtzionala duten edota zentzumen pertzepzioan zailtasunak dituzten pertsonen beharrei erantzuteko sortutako zaratarik gabeko gunea.

12:30-13:30 Aurpegi margoketa eta bi txerrikumeen zozketa, gaztetxean.

EGAK antolatuta.

Tiketak: Xapatero eta Leku Ona.

13:00 Sakana Kantuz, herrian zehar.

17:00-21:00 Txoko lasaia, liburutegian: aniztasun funtzionala duten edota zentzumen pertzepzioan zailtasunak dituzten pertsonen beharrei erantzuteko sortutako zaratarik gabeko gunea.

19:00 Pilota partiduak, Euskalerrriari frontoian:

Igoa – Lizarraga / Olaetxea – Azpiroz Final laurdenetako partida II Open bikote profesionala:

Prado – Arbizu / Retegi Bi – Bergera

18:30-21:00 DJ Mikeltxi musika eta animazioa.

21:00 Zezensuzkoa.



ARTXIBOA

ETXARRI ARANATZ Igandean izanen da ekoizle eta artisauen azoka.

Ferietako artisauak eta ekoizleak

Etxarri Aranazko ferietara gerturaten direnek, Alain Floresen artilea, Cesar Errearen eskultura eta sukaldeko tresnak, Izaskun eta Danelen txotxongiloak, Erkuden Arrietaren makramea, Llunaren kakorraz lanak, Agurtzane Ugaldereen serigrafia artistikoak, Rosa Sarreatearen poltsoak, Angela Maria Arceren bitxiak, Iker Pelegrinen bitxiak,

Maidier eta Auxkinen larruak, Jule Costaren serigrafia artistikoa, Karmele eta Zaparen oinetakoak eta Alazneren arropa aurkituko dute.

Ekoizleak ere aurkituko dituzte bertan, Aritzkurengo tienduka, Baztango txerrikiak, Legar-beko barazkiak, Jeingenekoa, Sustrai gaztandegia, Ana Sabando ukenduak, Goldaratzko ahuntz gazta, Erkan, Mendiko, Karlos ezta, Balda eta Albi gazta, Erlan ezta eta Mendiko olioak.



Altsasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAI-
NO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 4

ALTSASU Gazte agenda.

Billar txapelketa.

18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Palestinarekin elkartasun baraualdia.

Palestinarekin elkartasun baraualdia.

Palestinaren erresistentzia babestu, Israel eta bere konplizeei aurre egin.

Palestinarekin Elkartasunak antolatuta. Akanpada eguna.

18:00 Akanpadaren hasiera, plazan.

19:30 Kontzentrazioa, udaletxean.

20:00 Bertso saioa, plazan.

22:30 Dokumentalaren proiektzioa, plazan.

IRURTZUN Bertsolaritza.

Bardoak Nafarroako Taldekako

Bertsolari Txapelketaren

finalaurrekoen kanporaketa: Argako

Bixiguak (C multzoko lehena) –

Mutilatuak (D multzoko lehena).

18:30ean, Pikuxarren.

ARBIZU Batzarra.

Eskola zaharra erabiltzeko oinarriko

araudiaren proposamena

eztabaidatzeko batzarra.

18:30ean, eskola zaharreko areto nagusian.

IRURTZUN Antzerkia.

El paraíso de los rotos Lorena

Arangoaren eta Patxi Larrearen

antzezlanaren emanaldia.

Sarrera: 8 euro.

19:00etan, kultur etxean.

OLATZAGUTIA Irakurle taldea.

Olatzagutiko irakurle taldea: Alejandro

Palomas idazlearen *Una madre*

liburua.

19:00etan, liburutegian.

ETXARRI ARANATZ

Aurkezpena.

Zama X. Azken doinuak etxerantz
kartelaren aurkezpen festa.

20:30 Zama arintzeko taloak,
plazan.

21:00 Zama X. kartelaren
aurkezpena.

21:30 Mirari Martiarenaren
bakarrizketa.

22:00 Ane Martijaren kontzertua.

23:00 Bulkada taldearen
kontzertua.

LARUNBATA 5

ALTSASU Topaketa.

Euskal Herriko Pegatineroen XXII.

Topaketa.

11:00 Euskal Herriko pegatina

bildumagileen urteko

topaketa, Kukurreka

elkartean.

14:30 Bazkaria.

OLATZAGUTIA Auto lasterketa.

XLII. Urbasako Igoera, Sakana

Motorsportek antolatuta. 100 piloto

baino gehiagok eman dute izena.

Oharra: Urbasako portuko errepidea

ostiralean itxiko da, 19:00etan.

12:00 Entrenamendu ofizialak.

Segidan, 1. Manga Ofiziala.

Segidan, 2. Manga Ofiziala.

ALTSASU Gazte agenda.

Billar txapelketa.

18:00etan, Intxostiapunta gazte

gunean.

IGANDEA 6

ALTSASU Txirrindularitza irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen

BTT taldearen irteera: Lubierra –

Haginera, 47 kilometroko ibilbidea.

08:30ean, Zumalakarregi plazatik.

IRURTZUN Tailerra.

Txuri-beltza da ta... Xabier Lizasoren

musika eta jolasa ekimena. Euskaraz.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Emmanuelle

Igandea 6 19:30

Astelehena 7 19:00

Buffalo Kids euskaraz

Igandea 6 17:30

Joker: Folie à deux

Osteguna 10 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

La virgen roja

Igandea 6 19:30

Los destellos

Osteguna 10 19:00

17:30ean, kultur etxean.

ASTELEHENA 7

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen

Mugimenduaren Pentsio duinen

aldeko kontzentrazioa.

12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEARTEA 8

ALTSASU Tailerra.

Kafe konpondu: etxetresna

elektrikoak eta beste hainbat gauza

konpontzen ikasteko tailerra. Doakoa.

Izena ematea: sakana@cederna.es,

urriaren 6ra arte.

17:30etik 19:30era, Gure Etxean.

ALTSASU Hitzaldia.

Ba al dakizu dagokizun pentsioa

kobratzen ari al zaren? Santos

Indakoetxea eta Xabier Lareki

pentsiodunak, Sakanako Pentsiodun,

Jubilatu eta Adinekoen

Koordinakundea.

18:00etan, jubilatuen elkartean.

ASTEAZKENA 9

OLATZAGUTIA Hitzaldia.

Los derechos de los y las

consumidores, Iratxe Nafarroako

Kontsumitzaileen Elkartearen

hitzaldia, Iratxe elkarteak antolatuta,

Olatziko Udalaren laguntzarekin.

18:00etan, kultur etxean.




UTZITAKOA

ALTSASU Artekleta. Bizikletari bide: jasangarritasuna, artea eta Sakana. Sakanako artistek bizikletekin egindako artelanen erakusketa. Altsasu BHLn.



ALTSASU Yolanda Arnedo dekorazio tailerreko lanak. Urriaren 13ra arte. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna baino ordu bat lehenago eta igandetan 18:30etik 19:30era. Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan.



ARTXIBOA

IRURTZUN Erakusketa kolektiboa: Doris Vicente, Agus Lizarraga eta Luisa Aldaburu margolarien lanen erakusketa. Urriaren 31ra arte. Pikuxar tabernan.

Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Etxe zaharren
berriztatze eta birgaitzea

OSTEGUNA 10

LAKUNTZA Askotariko Sakana jardunaldiak.

Askotariko Sakana. Aniztasun erein jardunaldiak: *Miaukatuz* Boleibol klub inklusiboa LGTBQ+-ren inguruko hitzaldia: Antuan Saez Gavilanes, Rebeca Romo Hernandez eta Asier Garcia Urbina. Boleibol partida parte hartzailea. Elebitan. Dinamizatzailea: Nekane Lopez de Luzuriaga Echeverria.

Informazio gehiago: berdintasuna@sakana-mank.es.

18:30ean, kultur etxean.

OSTIRALA 11

LAKUNTZA Aurkezpena.

Altsasuko Gazte Topagune Sozialistaren aurkezpena.

16:30 Mus txapelketa (izena emateko: 638 191 896, 5 euro); saria: Gazte Topagune Sozialistarako bi sarrera.

18:30 Aurkezpena.

19:00 Pintxopotea.

ETXARRI ARANATZ Astotariko Sakana jardunaldiak.

Askotariko Sakana. Aniztasuna erein jardunaldiak: *LGTBI-fobia kirolean erreallitate bat da* dokumentalaren emanaldia eta mahai ingurua: Olaia Eizagirre Sagastibeltza palista eta entrenatzailea, Iñaki Rubio Mendoza kazetaria eta Bea Sever Naizen adingabe transexualen familien elkarte. Dinamizatzailea: Amets Castrejana Berdintasun aholkularia kirol eremuan, feminista eta LGTBIG+ aktibista. Euskaraz.

18:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Hitzaldia.

1934ko iraultzaren 90. urteurrena. *Oroimena borrokan eraiki* jardunaldiak. 1934ko iraultza Altsasun eta Euskal Herrian, losu Chuecaren hitzaldia. 18:30ean, Gure Etxean.

ALTSASU Hitzaldia.

Tren sozialaren alde, AHTrik ez! Altsasu y el tren, pasado y futuro EH Bilduren hitzaldia: Ainize Ibagutxi, losu Imaz eta Kutxo Calleirasekin. 18:30ean, lortia kultur gunean.

JAIOTZAK

• **Abimael Paulos Fernandez,** irailaren 22an Urdiainen.

HERIOTZAK

• **Inocencia Joaquina Sanchez Sanchez,** irailaren 25ean Altsasun.
• **Jose Antonio Elustondo Asiain,** urriaren 1ean Irurtzunen.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IRAGARKI SAILKATUAK

MEKANIKARI LANPOSTUA

Kamiol eta autobus tailerra mekanika, txapa eta margo ezagutzak dituen langile bila Sakanan. Curriculumak: tallercamion10@gmail.com / 948 507 019

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Irurtzango PIKUXAR tabernak zerbitzaria bilatzen du: txandakako asteburuetan lan egiteko. Esperientzia baloratuko da. Euskara ezinbestekoa. Interesa dutenek CVA tabernan utzi edo pikuxa-berna@gmail.com helbide elektronikora bidali.

Mank-en lan egiteko aisialdiko begirale eta kirol monitore lan poltsak osatu nahi dira: Bi deialditan parte hartzeko C1 euskara maila beharrezkoa izango da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

IKASTAROAK

Indar tailerra emakumeentzat: Azaroaren 5ean Ziordin eta azaroaren 29an Uhartarakilen. Informazio gehiago eta izen emateak kirolak@sakana-mank.eus edo 610 812 888 telefonoan. **Gimnasia terapeutikoa fibromialgia eta Neke Kronikoa dutenentzako:** Osasuna hobetzeko jarduera fisiko espeziifikoak egingo dira ikastaroak Altsasun, Etxarrin eta Irurtzunen. Informazio

gehiago eta izen emateak Sakanako Mankomunitatean (948 464 866) edo AFINAN (948 135 333) telefonoetan. Emaillez kirolak@sakana-mank.eus helbidera idatziz.

OPATUTAKOAK

Irailaren 13an Txurregin aurkitutako betaurrekoak: Txurregi mendian aurkitu nituen betaurreko graduatuak Irurtzango udaletxean utzi ditut, galdu dituenak han aurkitu ditzake.

Etxarri Aranatzko udaletxearen estalopean Wilson markako tenis raketa baten funda beltza opatuta: Irratian dago.

Etxarri Aranatz 6 gilitza aurkitu dituzte: Hotsen! Giltzarapo batean, gomazko bi panpin txiki-ekin batera. Irratian daude.

OHARRAK

Lakuntzako entitateendako Udalaren dirulaguntza deialdia zabalik: Laguntzak eskuratzeko baldintzak dira jarduerak herritar guztiendako zabalik egotea, hezkuntzaren edota gizarte, kirol eta kulturaren aldetik interesgarriak izatea, herritarren harremanak eta elkarbizitza, hautapen libre eta garapen pertsonala sustatzea eta udalaren beste laguntza-lerro batean sarturik ez egotea. Deialdiaren oinarriak eta dokumentazioarekin batera aurkeztu beharreko eskabide eredu www.lakuntza.eus webgunean dago.

Eskaerak urriaren 4ra arte aurkez daitezke.

Lakuntzan Euskara ikasteko dirulaguntzak: Lakuntzan errolatutako 16 urtetik gorako pertsoei zuzendua. Deialdiko oinarriak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa udal bulegoetan daude eskura eta eskariak Lakuntzako Udalaren erregistroan aurkeztu behar dira urriaren 4a baino lehen. Informazio osoa www.lakuntza.eus web orrian eta udaletxean.

Arbizuko Utzuber Ekogunean konposta eskuragarri: Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak gogorarazi du, nahi duen guztiak urte guztian zehar konposta eskuragarri duela bertan. Informazio gehiago nahi duenak info.hondakinak@sakana-mank.eus e-postara idatz dezala edo 900 730 450 telefonora hots egin dezala.

Bi autobus ordutegi bertan behera: La Burundesak jakinarazi duenez, Olaztitik Iruñara astegunetan, 06:30ean abiatzen den busa eta Iruñetik Olaztira astegunetan, 11:45ean abiatzen den busa bertan behera gelditu dira.

Gurutze Gorriak Altsasuko Otadia aterpetxean laguntzeko boluntarioak behar ditu: Errefuxiatuei gaztelaniazko klaseak emateko astean behin edo bitan eta hurrekin jolas jarduerak egiteko. Astean bitan litzateke, uztaile eta abuztuan. Gurutze Gorriekin harremanetan jarzteko 617 351 603 tele-

fonora dei dezala edo aterpetik pasa dadila.

Etxarri Aranatzko Abesbatza Txikiak zure aho-tsa behar du: 6-15 urte bitarteko haurrez osatuta dago abesbatza eta kide berrien bila dabil. Interes duenak harremanetan jar dadila corotxikis@gmail.com helbidera idatziz. Informazio gehiago www.coraldeTxarriaranaz.com web orrian.

Euskara ikastaro teknikoak egiteko dirulaguntzak: Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak jakinarazi duenez, atzera ere, ikasketa ofizialak eta aratuak ez diren ikastaro, jardunaldi, biltzar, mintegi edo gisakoetan parte hartu duten herritarrei dirulaguntza emateko deialdia zabaldu du. Joan zen urteko azaroaren 1etik aurtengo abenduaren 31ra bitarteko ikastaroen matrikulak. Beti ere, edozein gairi buruz euskaraz egindakoak badira, aisialdiko monitore edo zuzendari izateko euskarazko ikastaroak barne. Horiez aparte, euskararen edota hizkuntza gutxituen normalizazioarekin edo soziolingüistikarekin zerikusia dutenak ere lagunduko ditu. Laguntzatik kanpo geldituko dira egoitza eta kilometraje gastuak. Euskara Zerbitzuak jakinarazi duenez, aurtengo abenduaren 31rako bukatuta ez dauden ikastaroen kasuan, gutxienez %80ko asistentzia eskatuko die parte hartzaileei data horretarako. Deialdiari buruzko

informazio guztia sakana-mank.eus webgunean.

Sakanako Mintzakide taldeak: Altsasun astelehenetan 10:00etan liburategian, ostegunetan 20:00etan Lezea tabernan eta ostiraletan 9:00etan Kaixo tabernan, Ziordian ostiraletan, 17:00etan liburutegian, Etxarri Aranatz ostrialetan 19:00etan Xapatero tabernan, Arbuzun astelehenetan 16:30ean kiroldegiko tabernan, Lakuntzan asteazkenetan 18:15ean jubilatuen elkartearen irurtzunen astelehenetan 18:30ean Iratxo tabernan, ostegunetan 09:00etan Pikuxarren eta ostiraletan 19:00etan Pikuxarren ere. Parte hartzeko deitu 600 482 024 telefonora.

SOS GAZA. Gernika-Palestina herri ekimenak Yala Nafarroa plataformarekin batera Elkartasun Aktiboa inizatiba martxan jarri du: Netanyahu nazioarteko epaileen aurrean eramateko, Gazan elkartasuna proiektuak bultzatzeko Mundubat GKE-ren bitartez eta

Palestina leku guztietan ikusarazteko. Ekarpem ekonomikoak egiteko. Nafarroan ES36 3035 0083 2808 3014 0037 kontu korrontean dirua sar dezakezu, edo zure banketxearen aplikazioaren bitartez BIZUM EMN/DONAR atalean Mundubat Fundazioa bilatu eta 08737 kodea erabili dirua eman.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkartei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskaraz hutsen idatzita dagoen errotulu jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Aralarko Santutegiko museoan bisita gidatuak egiteko aukera: Aralarko Santutegiko museoan ikusi eta bisita egiteko ordutegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan. Igaudeetan 10:30ean, 11:30ean, 13:30ean, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu.

Emakumeen bigunearen zabalpen zerrenda marxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazio zabalpen-zerrenda bat sortuko du. Berdintasun Zerbitzuti antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen-zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp-eko mezua zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 32 85 93 iragarki@guaixe.eus www.iragarkilaburak.eus

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Astearteko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Ebebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko astearteko 13:00ra arte.

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📱 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

EMAKUME PREFERENTEA

3. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu - Cantolagua 6-0

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTEA . 1. FASEA

1 Altsasu 9
2 Universidad de Navarra 6

HURRENGOA

URRIAK 6, IGANDEA

19:00 Univ. de Navarra - Altsasu (Iruñea)

Altsasuk lider jarraitzen du

Gol festaren ondoren, Altsasuk Universidad de Navarrarekin lidergoa du jokoan.

GIZON ERREGIONALA

3. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Beti Kozkor - Altsasu 0-8
Lagunak B - Etxarri Aranatz 1-3
Lagun Artea - Baztan B 0-0

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Altsasu 9
3 Etxarri Aranatz 7
9 Lagun Artea 5

HURRENGO JARDUNALDIA

URRIAK 5, LARUNBATA

16:30 Etxarri - Rotxapea B (San Donato)

URRIAK 6, IGANDEA

16:00 Altsasu - Lagun Artea (Dantzaleku)

Altsasu vs Lagun Artea, derbia

Altsasu lider jarri da, Beti Kozkorri Lekunberrin 0-8 irabazi eta gero. Lagun Artea Baztan hartu zuen, eta partida lehiatua berdinketarekin despeditu zen. Dantzalekuko derbian, Altsasuk lider jarraitzeko 3 puntuak ortu nahi ditu, eta Lagun Artea gora begiratzen jarraitzeko 3 puntuak. Beraz, derbi borrokaturra espero da.

Etxarrik Rotxapea hartuko du

Etxarri Aranatzek sentsazio onekin jarraitzen du Lagunak B taldearen kontrako garaipenaren ondotik. Hirugarren jarri da markagailuan, eta laugarren den Rotxapearekin postua du jokoan.

ARETO FUTBOLA Aralar Mendi, Arbizu, Altsasu eta Xota, lanera

Hirugarren mailan Aralar Mendik 7-4 irabazi zion Beteluri. Gaur Cintruenuen du aurkari Erriberan, 20:00etan. Lehen Autonomikoan Arbizuk bina berdindu zuen Anaitasunarekin, eta larunbatean Los Saucesen kontra jokatuko du Arrotxapean. Altsasuk 3-2 galdutako zuen Universidad de Navarraren kontra, eta larunbatean Ribera de Navarra du aurkari etxean, 18:00etan. Emakumeen lehen senior mailan Xotak Orvina A liderra hartuko du bihar etxean, 11:00etan.



Igor Arrieta eta Iker Mintegi, selekzioko gainontzeko kideekin, Zurich-eko Mundialeetan. FEDERAZIOA

Zapore oso gozoa ekarri dute Zurich-etik

TXIRRINDULARITZA Igor Arrietak eta Iker Mintegik lan bikaina egin dute Munduko Txirrindularitza Txapelketetan. Arrieta Top 10ean sailkatu zen, eta Iker Mintegik liderrak laguntzen ezinbesteko lana egin zuen. Egunotan Belgika eta Italian ari da

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Aurreko astean Zurich munduko txirrindulari onenen bilgune izan zen. Mundialak jokatu ziren, junior mailan, 23 urtez azpian eta eliteen mailan. Bi ordezkari sakandar izan genituen bertan, irailaren 27an 23 urtez azpikoen errepide lasterketan lehiatu zirenak: Igor Arrieta uharte arakildarra (UAE Emirates) eta Iker Mintegi altsasuarra (Euskaltel Euskadi).

Zirkuitu zailean, ederki

Zirkuitu oso zaila zen Zurich-ekoa, apenas atsedetik gabekoa, eta hasieratik hasi ziren erasoak (173 km, 2.500 m desnibela). 80 kilometroren faltan 50 txirrin-


dulari geratu ziren aurrean, Igor Arrieta eta Iker Mintegi tartean, selekzioko Pablo Torres eta Ivan Romeo taldekideekin batera. Sentsazioak onak ziren. Zirkuituko azken itzulian Igor Arrietak eta Ivan Romeok talde nagusian jarraitu zuten, baina bukaerako igoera gogorrean atzean geratu, eta ezin izan zuten aurreko txirrindulariekin bat egin. Ivan Romeo, 23 urtez azpiko erlojupeko munduko txapelduna, bederatzigarren sailkatu zen, Niklas Behrens txapeldun alemaniarretik 2:27ra, eta Igor Arrieta hamargarren, 2:45era. Iker Mintegi 30. postuan iritsi zen.

Munduko hamargarren onena, egindakoarekin kontentut zegoen

uharte arakildarra. "Mundialera ilusio handiz nentorren, lana ongi egiteko gogoz. Uste dut lasterketan oso aktibo egon naizela, aurrean egoten saiatuz, baina bukaeran indar pixka bat falta izan da. Hala ere, nik uste dut Top 10ak zapore ona utzi didala".

Lasterketa "oso gogorra" izan zela nabarmendu zuen. "Mundu guztiak aurrean egon nahi zuen, eta horrek lasterketa gogortu du. Eta euriak, jakina".

Iker Mintegik lasterketa bikaina egin zuen, taldekideak behar bezala lagunduz. Egunotan Belgikan eta Italian dago, azken klasikoetan parte hartzen. Binche-Chimay-binchen eguneko ihesaldian sartu zen.



Saioa eta Aimar Araña, iazko helmugan.

MENDI LASTERKETAK

Mendira Joan Etorria, azken orduak

Etxarri Aranatzek mendi lasterketen lekukoa hartuko du. 49. Mendira Joan Etorria dago jokoan igandean, ferietan, 11:00etan. Oraindik ere izena eman daiteke, gaur, ostirala, 20:00ak arte, *Kronoak.com* webgunean. Antolakuntzak 2009raino jaiotakoei zabaldu die izena emateko aukera. Hartzabalera heldzea da erronka, eta herrira bueltatzea (10 km, 572 m desnibel +).



CBASK Narum mailaz jaitsi da.

SASKIBALDIA CBASK-eko taldeak, denboraldi berrirako prest

2024/2025 saskibaloia denboraldian CBASK Narum Fisioterapia taldea gizonen bigarren maila Autonomikoan lehiatuko da, iaz mailaz jaitsi eta gero. Igandean Megacalzado Ardoi taldea izango du aurkari, 18:00etan, Zizurren. Emakumezkoetan, CBASK Xabi Gorritz Tattoos taldeak lehen Senior Autonomikoan segiko du. Larunbatean, 18:00etan, Navarro Villoslada A du aurkari, Iruñean.

Zabaleta, Mastersa xede

PILOTA Jose Javier Zabaletak Logroñoeko San Mateo Feriako finala gaitzearan arantza Nafarroa Arenan kendu nahi du. CaixaBank Masterseko finalerdiak gaur, ostirala, jokatuko dira. Peñak eta Zabaletak Peio Etxeberria eta Mariezkurrena II.a izango dituzte aurkari. Irabazleek igandean finala jokatuko dute, Altuna-Iztuetaren edo Zabala-Imazen kontra.





Izaskun Beunzak eta Izaskun Olletak tarte luzean elkarrekin egin zuten lasterketa.

Quandt-en eta Beunzaren Urbasa

MENDI LASTERKETAK XVI. Olatzagutia-Urbasa Mendi Lasterketan 149 korrikalarik parte hartu zuten, eta lohia izan zuten bidaide. Izaskun Beunzak bere hirugarren garaipena lortu zuen jarraian, eta gizonezkoetan Gorka Acebes izan zen lehen sakandarra

Maidar Betelu Ganboa OLAZTI Eguna euritsu esnatu zen, baina XVI. Olatzagutia-Urbasa Mendi Lasterketa abiatzerako ez zuen euririk egiten. Urbasako tarte-kako lainoa kenduta, korrika egiteko egun paregabea izan zuten Sutegik antolatutako proban parte hartu zuten 149 korrikalariek. 17,2 km eta 920 m desnibel + osatu behar izan zituzten Urbasa-Andiako bazter zoragarrietan barna. "Ibilbide guztia bustia dago, lokaztua, irristakor" azaldu zuen Sutegiko Fermin Zornoza. Guztia behar bezala antolatzeko 70 boluntariok lan egin zuten, eta eskertuta zeuden Sutegikoak. Nagusien proba jokatzeko bitartean, 50 neska-mutikok parte hartu zuten txikiendako probetan.

Sutegik joan zen urtean lasterketako ibilbidea moldatu behar

izan zuen, Nafarroako Gobernuko Ingurumen Departamentuak eskatuta, aurreko ibilbidea Urbasa Andian babes berezia duten gune batzuetatik pasatzen zelako. Moldaketak eginda, Gainsol, Txondorren bidea, Zelai Haundi, Larrakarte eta Morte-rutxo bezalako paraje ikusgarrietatik pasa zen lasterketa.

Milanen eraso

Lasterketa erdirako aurretik jarri ziren Milan Quandt, Ibai Primicia eta Edu Esteban. Lehendabiziko biek egin zuten aurrea, eta esprinta jota bakarrik

"GURE PROBAK HERRIKOIA IZAN NAHI DU, BERTAKO EK KORRIKA SEGI DEZATEN" FERMIN ZORNOZA

iritsi zen Quandt iruindarra (1:35:08). 17 segundo atera zizkion Txantrea Trail taldeko Ibai Primiciari. Edu Esteban sartu zen hirugarren (1:37:02). Lehen sakandarra Gorka Acebes olaztiarra izan zen, sailkapenean hamabigarren (1:44:09).

Milan Quandt-ek ez zuen irabaztea espero. "Disfrutatzeko asmoz etorri naiz lasterketara, beti bezala. Pixka bat goian egotea zen helburua, baina irabaztea, inondik inora. Hasieran hirurok batera ibili gara, eta gero eraso jo dut. Badakit azkeneko jaitsieran Ibai oso ongi ibiliko zela, eta hor topera estutu dut. Azkenean, tartea mantendu eta irabaztea lortu dut".

Bi Izaskunen arteko lehia

Emakumezkoetan probaren tarte handi bat batera egin zuten Izaskun Beunzak eta Izaskun



Iteerarako jada ez zuen euririk egiten.

Olletak. Taldekideak dira Beste Iruña klubean, aspaldiko eza-gunak. Bukaeran, Izaskun Beunzak aurrera egin eta gailentzea lortu zuen (2:01:03), Olatzagutia-Urbasa Mendi Lasterketako bere hirugarren garaipena lortuz. Olaztiarrak 2 segundo eskas atera zizkion Olleta iruindarrari (2:01:05) eta helmugan besarkada sentitua eman zioten elkarri. Hirugarren Aida Corchero araiarra izan zen (2:05:19).

Izaskun Beunza hirugarren garaipena lortzeagatik "pozik" zegoen helmugan. "Hasierako portu zaharrean bera aurretik jarri da, baina jaisterakoan harapatu dut, eta hortik aurrera elkarrekin joan gara. Izaskun Olleta asko ezagutzen dudanez, horrek lasterketa planteatzeko aukera ematen dizu, eta azken eraso jotzen asmatu dut". Aurreko astean Uharte Arakil Beriain Km Bertikalean aritzetik zetorren. "Uharte beste mundu bat da, igerilekuetatik hasita sufritzen dut. Sufritzera ohituta nago, baina modu dosifikatuago batean" zihoen, irribarrez.

Beteranoen artean Alcoiko Emili Selles y Segui izan zen azkarrena, helmugan hamargarren sartu eta gero (1:43:20). Emakumezkoetan, Silvia Perez altsasuarra (3:13:50).

Guztiaren gainetik, herrikoia

Sutegik lasterketa herrikoia aldeko apustuari eusten dio. Guztira 46 sakandarrek osatu zuten proba. "Guztiaren gainetik, gure probak lasterketa herrikoia izan nahi du, bertako korrikalariek lasterka egiten segi dezaten. Izar handiak etortzen ziren urteak aspaldi pasa ziren. Aurtan, 149 korrikalarik eman dute izena, giro ona egon da, eta oso kontentu gaude" nabarmendu zuen Fermin Zornoza.

Sakandarrak

XVI. Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa (17,2 km, 920 m desnibel +)

Gizonak

1. Milan Quant	1:35:08
12. Gorka Acebes	1:44:09
14. Juan Larrea	1:46:33
22. Joxeja Maiza	1:52:02
24. Jose L. Beraza	1:52:31
26. Iraitz Berastegi	1:52:59
33. Ibai Perez	1:56:54
35. Ibon Ubeda	1:58:25
36. Alain Perkaz	1:58:26
37. Asier Amiama	1:58:47
42. Kepa Gordo	2:01:52
49. Jorge Azanza	2:03:26
50. Andoni Azanza	2:03:29
53. Jon Mendia	2:04:08
54. Fran Araña	2:04:10
55. Igor Maiza	2:04:23
57. Asier Leiza	2:04:41
60. Asier Pellejero	2:05:27
61. Iurgi Flores	2:07:32
66. Eñaut San Vicente	2:10:28
67. Juan Garziandia	2:10:36
69. Ruben Izko	2:11:14
71. Sergio Sanca	2:12:35
72. Iñaki Garcia	2:12:54
78. Adrian Claver	2:14:37
80. Javi Morras	2:14:37
84. Iosu Urriza	2:15:28
87. Jon Gil	2:16:35
88. Ander Mikeo	2:17:32
92. David Oroz	2:20:56
93. David Fernandez de Garaialde Lazkano	2:22:26
95. Aitor Pinto	2:23:08
96. Oihan Aldaz	2:23:25
97. Egoitz Aldaz	2:23:32
98. Andoni Barrena	2:24:25
104. Aritz Irigoien	2:27:24
105. Ismael Lopez de Goikoetxea	2:27:31
107. Eneriz Besga	2:30:00
108. Luis Miguel Lima	2:30:03
112. Jon Izquierdo	2:32:29
114. Asier Agirre	2:33:50
115. Juanjo Otsoa	2:33:50

Emakumeak

39. Izaskun Beunza	2:01:03
62. Ines Moreno	2:08:11
79. Olatz Azazeta	2:14:37
122. Silvia Rodriguez	2:46:30
133. Silvia Perez	3:13:50



Harby Simca Rallyarekin, Urbasako Igoerako 0 autoa. Aurtan ez da aterako, Alpine eta Porsche nahasketa ekarriko dutelako. UTZITAKOA

Harby, Urbasako igoerako arima

AUTOMOBILISMOA Bihar jokatu den XLII. Urbasako Igoera lehendabiziko bihurtu zuzenean jarraituko dute Francisco Arbina 'Harby' pilotu ohiak, eta bere Simca Rally mitikoa puntuan mantentzen duen taldeak. Urbasako Igoera "festa handia" dela argi dute

Maidar Betelu Ganboa OLAZTI
Larunbatean Sakanako automobilismoaren festa handia ospatuko da Olatzin: XLII. Urbasako Igoera. Historia luzea duen proba honetaz hitz egiten hasita, ezinezkoa da Francisco Arbina Jimenez 'Harby' pilotu olaztiarraren izena ez ateratzea. Nahiz eta bere ibilbideko azken bizpahiru urtetan Formula Dallara Alfa Romeo Gr.E autoarekin lehiatu, Harby eta bere Simca Rallya mitikoak dira. Harbyren Simca, ez da, alferrik, Sakana Motorsport eskuderiaren logoa, Harby pilotu erreferentea izan baita haren atzetik etorri diren Olatziko pilotu guztiendako.

Biak, motorrak eta autoak
Harbyk 61 urte ditu eta txikitatik ezagutu du Urbasako Igoera. Izan ere, Real Automovil Club Vasco Navarrok 1968an antola-

tu zuen, lehen aldiz, Urbasako Igoera. 43 pilotuk hartu zuten parte eta Claudio Aldecoa gasteiztarrak irabazi zuen. Beatriz Doria iruindarra ere aritu omen zen, eta hamabosgarren sailkatu. 1982ra arte Espainiako Txapelketarako puntuatu zuen. "Portura bideko kalean bizi gara, eta parez-pare genuen Urbasako Igoera. Kotxeak izugarri gustatzen zitzaizkidan. Gogoan dut txikia nintzela Juan Fernandez pilotu kataluniar handiak (Urbasako sei igoera irabazi zituen) Urbasako helmugara iristerakoan keinu egiten zidala eta Olatzira

"SIMCA SALDU? ESKATU DIDATE, BAINA EZ DU PREZIORIK, SENTIMENDUA DA"
HARBY

bere barketan jaisten ninduela. Uste dut grazia handia egiten niola." gogoan du Harbyk.

Automobilismoan hasi aurretik, motorra erosi zuen. "Soldaduska Andaluzian egin nuen, eta han motor asko zeuden. 21 urterekin etxera bueltatu bezain pronto bigarren eskuko Yamaha urdina erosi nuen; aurrerago beste bat hartu nuen. Irteera asko egiten nituen motorrekin. Jerez, Jarama eta Montmelóko zirkuituetara joaten nintzen Motoziklismoko Mundialeko lasterketak ikustera. Kevin Schwantz oso gustuko nuen, eta egun, Marc Marquezen zalea naiz". Oraindik Suzuki motorra du, ongi zainduta. "ITVa pasatzera eramanez nuen, eta milioiko galdera egin zidaten, ea noiz salduko ote dudan". Azkenaldian ez da apenas ibiltzen. "Niretako, motorrak garai bat du".

Urbasa eta Egozkue

Harbyk ez du oso ongi gogoratzen noiz hasi zen automobilismoan. Errudunak "Urbasako Igoera eta Pantxo Egozkue" izan zirela oso argi du. "Pantxo Egozkuek Europako Mendiko Txapelketa zuen jokoan eta Frantzia eta Alemania arteko mugan lasterketa bat zuen. Nire Peugeot 205-ean lau lagun joan ginen lasterketa ikustera, eta berarekin egon ginen. 1993-1994 urtea izango zen. Egozkuei furgoneta bat lapurtu zioten, eta Vilarinok furgoneta bat utzi zion, baina berea ere agertu zen. Galdetu zigun ea furgoneta bat hona jaitziko genuen, eta gutako batek ekarri zuen. Horrela, nolabaiteko harremana sortu zen, gauza batek bestera eraman zuen, eta automobilismoaren pozoia sartu zitzaidan". Urte horretan Europako Txapelketa irabazi zuen Pantxok. "Pantxok eta Vilarinok lehia handia zuten. Vilarinok baliabide gehiago zituen, aurrekontu handia, baina Pantxo, baliabide askoz ere gutxiagorekin, aurreko postuetan zegoen beti. Eta horrek meritu handia du. Europako eta Espainiako Txapelketak irabazi zituen, fenomeno hutsa. Lehendabiziko bi urtetan Pantxoren eskuderiarekin lehiatu nintzen. Bere buzoa dut, beti buzo horrekin lehiatu izan naiz. Ondoren, garai hartan Urbasako Igoera antolatzen zuen San Fermin eskuderiarekin hasi nintzen".

Simca gorria

Harbyk Simca 1000 autoa Bilbon erosi zuen. "Gorria zen, eta Bizkaian matrikulatuta zegoen. Rallyren batean ere aritu nintzen. Berehala lasterketetan parte hartzen hasi nintzen, horretarako erosi bainuen, lehiatzeko". Sakana Motorsporten datuen arabera, 1995 urtean lehiatu zen Harby lehenengoz Urbasako Igoeran, eta 35. sailkatu zen.

Argüelles eta Ondarra, alboan
Automobilismoaren abenturan Harby ez zegoen bakarrik. Jose Mari Argüelles 'Coutiño' eta Francisco Ondarra ziren bere

"URBASAKO IGOERA, IGOERA ETA ZIRKUITU GISA, ONENA DA, DENETATIK DUELAKO"
HARBY

bi laguntzaile fidelak. "Biak Cementoseko langileak ziren, baina mekanika kontuetan ideia bazuten. Argüelles motorraz arduratzen zen. Kars-etan ibilia zen, eta zaletasuna bazuen. Ondarra txapaz arduratzen zen. Egindako lasterketa guztien denborak artxibatuak ditu. Nik mekanikaz ez nuen asko ulertzen; *señoritoen* moduan, gidatu eta listo. Beti hirurak ibili ginen, baina laguntza behar bagenuen, herriko norbait beti genuen prestu". Etxeko bajaran ordu zenbatezinak ematen zituzten. "Egunero biltzen ginen bajaran, eta herriko motorzale guztiak etortzen ziren gure arrimoan. Beti zegoen norbait".

Bajaran, egunero

Bajerara hurbiltzen zirenen artean Raul Lopez 'Patxu', Iban Lopez de Goikoetxea, Goya, Joaquín eta Harbyren atzetik pilotu egin ziren beste olaztiar guztiak zeuden. "Guretako Harby automobilismoan erreferente handia izan da. Lasterketetara eramaten gintuen, oroitzapen onak ditugu" dio Patxuk. "Garai hartan Olaztiko pilotu bakarra nintzen, eta horregatik esango dute erreferentea nintzela. Iban, Patxu eta Goya oso zaleak ziren txikitatik, eta horregatik etortzen ziren bajerara. Eta ez ditut gaitzeko pilotu guztiak ere ahaztu nahi".

Simca Rallya

Harbyk autoa aldatu zuen hiruzpalau urte beranduago. "Simca gorria ez zen asko ibiltzen. Horregatik Simca Rallya erosi nuen, egun oraindik mantentzen dudana. Motor hobeagoa du, propio prestatutakoa. Askok ibiltzen da, izugarri, indar handia du. Pantxo Egozkuearen anaia Carlosena izan zen, baina gero Bergarako batek erosi zuen eta hari erosi nion. Argi nuen auto berria ere beste Simca bat izan behar zela. Askok ibiltzen ziren, eta oso kañeroak ziren. Oso gustuko nituen".

Fito eta Galizia

Harby eta bere taldea ez ziren gelditzen. Denboraldian hamar-hamaika lasterketa egiten zituzten, Euskal Herrikoak eta baita Errioxa, Kantabria, Asturias eta Galizako zenbait. Pare bat aldiz ere Huescan lehiatu ziren. Asturiasen Fitoko Igoera ezinbestekoa zen. "Fiton seku-



Harbyk lehen Simca gorria Bilbon erosi zuen. UTZITAKOIA



Simca Rallya asko ibiltzen dela dio Harbyk, indar handia duela. UTZITAKOIA



Harby Fitoko Igoeran. Leihoan lasterketako pegatina guztiak jartzen zituen. UTZITAKOIA



Harbyren Formula Dallara, Alfa Romeo motorra duen autoa. UTZITAKOIA

lako giroa egoten da. Joan nintzen lehen aldian, zale askok geratzen zidaten, autoari argazkiak ateratzeko. Eromena izan zen. Gogoan dut sekulako Ferraria ekarri zutela, baina asistentzia gunean gu ondoan geunden, eta jendeak Ferraria begiratu, baina berehala Simca ikustera hurbiltzen zirela".

Euskal Herrian automobilismoarekiko zaletasuna dago, "baina asturiarrak, galziarrak eta kanariar uharteetakoak oso fanatikoak dira". Urte askotan Pontevedrako Igoeran parte hartu zuen Harbyk, eta badaki zertaz ari den. "Lehendabiziko urtean lau joan ginen Pontevedrara, baina urtero jende gehiago batzen zitzaigun, eta azkenean talde ederra joaten ginen. Pontevedran lagun batzuk genituen, kopilotuak zirenak, eta eurek animatuta joan ginen. Historikoen kategorian jarri ninduten; ordua arte portugaldar batek irabazten zuen kategorian, Miniarekin. Lehen urtean irabazi nion, eta ordutik aurrera lehia estua izan genuen biok. Gustura ibili nintzen". Beste behin Cerdedoko igoeran parte hartu zuen.

Urbasakoa, ikusgarriena

Zer du Urbasako Igoerak horren berezi egiten duena? "Igoera eta zirkuitu gisa, niretako onena da, 4 km pasako ibilbidean (lehenago luzeagoa zen) denetatik duzulako: gune azkarrak, eremu zuzenak, eta denetariko bihurguneak: azkarrak, ferra bihurguneak, paellak... denetarik. Urbasa oso azkarra da. Eta ikusleendako, hoberena da, alde handiz, gehien ikusten den lasterketa delako. Goian jartzen bazara, ibilbidearen zati handia ikusten duzu. Dirua ez dagoelako, bestela, Europako Txapelketarako moduko proba da".

Harbyk argi du Urbasan egin dituen lasterketak ez direla onenak izan. "Sarritan aipatu dugu olaztiarren artean. Etxean aritzeak estra bat du, begi guztiak zure gainean daude". Simcarekin 3-4 minuturen artean ibiltzen zen. "Orduan distantzia luzeagoa zen, eta beste garai bat zen". Behin bederatzigarren izan zen. Hobekien euriarekin ibiltzen zen. "Gorlako Igoeran 90 piloturen artean bigarren sailkatu nintzen, euria ari zuela. Gozamen hutsa izan zen". Ez du probarik irabazi, baina bere mailan sarritan onena zen.

Ibilbidea memorizatu

Harby pilotu lehiakorra izan da beti. "Ongi pasatzera, baina denbora ona egitera ateratzen nintzen beti. Lehiakorrak ginen. Baina aitortuko dizut eguneko trofeoa autoa oso-osorik etxera ekartzea zela". Lasterketak ongi prestatzen saiatzen zen. "Aurreko astean ibilbidea ikustera joaten ginen. Ibilbidea ongi memorizatzeko zalantzak banituen, oinez igotzen nintzen. Hori Pantxok erakutsi zidan. Oinez igotzerakoan, buruan hobeki geratzen da ibilbidea nolakoa den. Igoera batean ezin gara zalantzekin ibili, ea bihurgunearen kurba luzea, motza, itxia edo irekia den, bestela hanka azele-ragailutik altxatu, eta denbora galtzen da".

Ez du istripu larririk izan, susto pare bat izan ezik. "Jaizkibelen Simcaren gurpilak hotzak zeuden, autoa gurutzatu zitzaidan, eta itzulipurdi egin nuen. Hurrengo asterako, martxan geunden berrir".

Formula Dallara, azkena

Harbyk formula bat erosi zuen aurrerago, Formula Dallara, Alfa Romeo motorra zuena. Azkeneko bizpahiru urteak auto horrekin lehiatu zen. Denbora hobeak egiten zituen, "baina ez nuen gozatzen. Autoa delikatua zen, eta prestaketa handia eskatzen zuen, zirkuitu batean sartu eta orduak sartzea, bere onena ateratzeko. Baina nik ez nuen denborarik, eta ez nion etekin guttia atera. Oso azkarra zen, eta martxa aldatzerakoan okertzen bazinen, atzera begira jartzen zen" gogoan du Harbyk. Bere garaian erabaki okerra hartu zuela aitortu du. "Zalantzan egon nintzen, formula edo Speed Carra erostea, eta okertu nintzen. Speed Carra erosiko banu gehiago gozatuko nuela uste dut; gidatzeko errazagoa da". Iritzi berekoa da Harbyren iloba, enduroko moto gidaria den Miguel Angel Perez Arbina. "Osabak 2007an parte hartu zuen Urbasako Igoeran azken aldiz, formularekin. Speed Carra izango balu, ziur urte gehiago iraungo zuela". Harbyk automobilismoa uztea erabaki zuen, formula saldu zuen, baina Simca Rallya beti mantendu izan du. "Duela gutxi olaztiar baten ezkontzara atera genuen, ilusioa zuelako". Simca saltzeaz, "ezta pentsatu ere. Ez du preziorik, sentimendua da".



Alpinchea, berrituta. UTZITAKOIA

Alpinchea, Urbasako Igoeran

XLII. Urbasako Igoera nobedadeekin dator. Batetik, antolakuntzak ordu bat aurreratu du probaren hasiera. Larunbatean, 12:00etan hasiko dira entrenamenduak, eta segidan bi mangak jokatuko dira. Errepidea gaur itxiko da, 19:00etan. Nafarroako eta Errioxako Mendi Txapelketetarako eta Nafarroako Formula Libreko Trofeorako baliagarria da. 100 pilotu inguruk hartuko dute parte, eta joan zen urteko irabazle Arkaitz Ordoki, Iker Palacios, Daniel Jimenez, Miguel Gutierrez eta Miguel Alonso daude faboritoen artean.

Orain arte Harby izaten zen proba zabaltzen zuena, Simca Rallyarekin, baina aurten Alpinche auto mitikoa izango da 0 autoa, Porsche motorra duen Alpine autoa; hortik izena, Alpinche. Estanislao Reverter pilotu galziarrak sortu zuen 1970 urtean. 1975.ean Reverterrek eta Salak XVI. Rallye Vasco Navarron parte hartu zuten Alpinchearekin, eta Urbasako 21 km-ko eremuan istripua izan zuten, elurra tarteko. 49 urte ondoren, Alpinchea berriro Urbasan egongo da. Reverter fundazioak autoaren errestaurazioa egin du. Gaur, ostirala, aurkeztuko dute Olaztin, arratsaldean.

Izan giltzarri!



Iker Uribe Muralista eta ilustratzailea

Kaixo! Iker Uribe naiz, muralista eta ilustratzailea eta Guaixeko bazkide ere banaiz. Zugana zuzendu nahi dut Guaixeko bazkide egitera animatzeko. Euskara laguntzeko, **izan giltzarri!**



[guaixe.eus/
kideak](https://guaixe.eus/kideak)





Pegatinak Euskal Herriko Pegatineroen Elkartearen topaketa batean. EHPE

Historia pegatinetan

Euskal Herriko Pegatineroen Elkartearen 22. topaketa izanen da bihar, larunbata, Altsasuko Kukuerreka elkartearen. "Denetariko" pegatinak biltzen dituzte, eta topaketan bildumagileen arteko harremanak eta pegatinak trukatzeko eguna izanen da

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU
Euskal Herriko pegatinak bildu, sailkatu eta zabaltzen dituen elkarte bat da Euskal Herriko Pegatineroen elkarte. 2018an sortu zen, eta elkartearen web-gunearen (euskalherrikopegatineroenelkarta.eu) eta sare sozialen bidez erakusten dute bildutako materiala. Gainera, zenbait liburu argitaratu dituzte eta erakusketak egiten dituzte ere. Urtean behin truke egun bat antolatzen dute, eta bihar, urriak 5, larunbata, Altsasun izanen dira; Kukuerreka elkartearen eginen dute XXII. Topaketa, 11:00etatik aurrera. Urteko topaketa egin ondoren, 14:30ean bazkarian bilduko dira.

"Euskal Herriko errealitatea islatzen duten" pegatinak biltzen ditu Euskal Herriko Pegatineroen elkarteak, kideek azalduta: "Mezu politiko edo soziala duten *pegata*

tak biltzen ditugu, batez ere". Pegatinen artean, beraz, alderdiek, sindikatuak, herri mugimenduek, kultur elkarteak eta abarrek kaleratutakoak jasotzen dituzte. "Oso esparru zabala da, eta gure kideen artean bakoitzak bere bilduma bere moduan egiten du; batzuk bakarrik ideologia, gai edo zonalde zehatz baten inguruko *pegata* gordetzen dituzte, beste batzuk futbolekoak edo musika taldeenak bakarrik...". Denetarik dagoela gaineratu dute.

Baina, zergatik pegatinak bildu? "Seguruenik paper zati txiki batean ideia bat laburbiltzen delako, eta hori gordetzeko oso erraza eta eroso delako. Guztiok dugu etxetik pegataren bat". Edonork argitara dezakeen zerbait dela gaineratu dute elkarreko kideek, "beraz herri honetan egon diren arazoaren ispilua

delako". Historiaren oroigarri fidela dira pegatinak.

Euskal Herriko Pegatineroen Elkarte 2018. urtean sortu zuten, baina bilduma egiten duen jendea pegatinak agertzen diren dagoela esan dute, "1970ko hamarkadaren bukaeran. Gutako gehienak *pegata* argitaratzen dituen edozein erakundean ibiliak gara, memoria ariketa moduan egiten dugu". Franco hil aurreko garaietakoak dira jasota dituzten lehenengo pegatinak, "oso baliabide eskasekin eginak eta klandestinoak; hortaz, lortzeko ia ezinezkoak".

**"EUSKAL HERRIKO
ERREALITATEA
ISLATZEN DUTEN
PEGATINAK BILTZEN
DITUGU"**

Pegatinak gordetzeko ekitaldi-ekitaldi ibiltzen direla esan dute, "eta aktibistekin harremanetan lortzen dira pegatinak". Beste bildumagileekin trukatzeko dituzte ere, eta gordetzen duten pegatina berrienagatik galdetuta, astero berriak argitaratzen direla esan dute: "Edozein herri-tako manifestazio, jai edo ekitalditan. Guretzako inoiz ez dago pegata berririk, hurrengoa inprentan prestatzen ibiliko direlako jada".

Pegatina gogokoenak "zaharrrak" direla esan dute, "lortzeko zailak direlako, baina estetika berezi bat dutelako; kolore gutxi eta marrazki sinpleagoekin, garaiko teknologiaren ondorio". Mezuaren aldetik denek balio handia dute: "Bakoitzak bere egia kontatzen duelako. Egia da ilegalizazio garaietakoak indar berezia dutela, diseinatu ziren baldintza zailen isla".

Garai berriak

Urtero "milaka" pegatina berri agertzen direla esan dute elkartetik. "Europako zonalderik aberatsena garelako esan genezake. Joera ez da gehiago aldatu, batzuk kalean itsastan dituzte eta beste batzuk gainean eramaten dituzte; baina ideia bere horretan mantendu da". Agian orain jendea "apur bat iheskorrago" dela esan dute, "lehen mundu guztiak paparrean zerman pegata bat herriko jaietan, orain gutxiago jartzen dira".

Jartzekotan ere "toki ezkutua-gotetan" jartzen direla gaineratu dute: "hanketan, adibidez; arlo guztietan aldatzen ari den gizartearen erakusgarri". Sare sozialen agerpenarekin pegatina kopurua jaitsi egin dela azaldu dute pegatineroen elkartetik, "antolakunde askok orain bertatik zabaltzen dituztelako haien mezuak".

Topaketa

Pegatineroen topaketaren 22. edizioa da aurtengoa. 2002tik darabate "horrelako egunak" prestatzen: "Hasieran elkarte bat ez izan arren, bazegoen talde txiki bat kontaktua mantentzen zuena, baita eguna antolatzeko baliabideak ere". Topaketa urtero herrialde batean antolatzea da helburua, "Iparralde oso zaila egiten zaigun arren". "Errepikatua ditugun *pegata* trukatzeko betidanik egin dugu, hala ere egun eta toki berean gure grina duten lagunekin elkartzea oso eraginkorra da, kontaktuak egiteko eta material berria lortzeko". Bihar Altsasuko Kukuerreka elkartearen izanen dute aukera.

"Mekanismoa oso sinplea da: bakoitzak errepikatuta dituenak eramaten ditu eta mahai gainean utzi, ondoren gainontzeko mahailetatik falta zaizkigun pegata guztiak har ditzakegu". Normalean topaketan 30 eta 40 bildumagile inguru biltzen dira, eta kanpoko jendea ere etortzen dela gaineratu dute, "katalanak, gaztelarrak, asturiarrak...).



Patxi Larrea eta Lorena Arangoa 'El paraíso de los rotos' lanean. NAF. ANTZOKI SAREA

Clownaren eta bufoiaren arteko komedia dramatiko

'El paraíso de los rotos' antzezlaren emanaldia izanen da gaur, Irurtzongo kultur etxean

IRURTZUN

Maiatzean Iruñeko Gaiarre antzokian mustu ondoren, Lorena Arangoa irurtzundarrak eta Patxi Larreak, Pareña Teatro konpainiak, *El paraíso de los rotos* antzezlana "berreskuratu" dute gaur, urriak 4, ostirala, 19:00etan, Irurtzongo kultur etxean. Gironan sortutako lan bat da, Pep Vila antzerkigilearekin. Sarrerak 8 eurotan eros daitezke.

El paraíso de los rotos antzezlanean "Clown eta bufoia" landu dutela azaldu zuen Arangoak. "Elkarrenganako lotura handia dutela badirudien arren, oso kontrakoak dira". Modu simple batean azalduta, jarraitu zuen antzezleak, clownak bere buruaz barre egiten du eta bufoiak beste guztiaz. "Baina badute horrelako amakomuneko puntu bat". Gaur Irurtzunen berrestreinatuko duten lanean, "ez da clown edo bufoia, baina bi horietatik edaten du".

Antzezlana gizartean lekurik ez duen bikote baten istorioa kontatzen du, Arangoak kontatu zenez. "Gizonezko bat eta emakumezko bat dira eta ez dute haien inguruarekin bat egiten, ez dute oso ongi ulertzen zergatik, baina ez dira barne sentitzen". Oso pertsona onak dira, eta egun batean dena botatzen den leku batean agertzen dira: "Balio ez duena, asperten gaituena eta abar botatzen dute bertan. Ez dakigu zehazki zer den leku hori". Zabortege bat izan daitekeela esan zuen Arangoak, baina antzezlanean ez da aipatzen. "Hortik ateratzeko

itxaropena dute, gauza garrantzitsu bat egiteko, eta behin eta berriz ateratzen saiatzen dira".

Pep Vila da antzezlaren zuzendaria, eta Arangoa, Larrea eta hiruren artean sortu dute, Gironan egindako hainbat egonalditan. Hilabetero, gutxi gorabehera, Kataluniara joaten ziren lanarekin jarraituz. Irurtzundarrak adierazi zuenez, "izugarria" izan da Vilarekin lan egitea.

Umorea

El paraíso de los rotos lanak "oso barruko" gaiak lantzen ditu, "indartsuak", baina umorearekin jorratzen dituzte. "Ez dakit zergatik ateratzen den; agian dramatikoa diren gauzak umorez tratatzen badituzu errazago hartzen dira, beste buelta bat ematen diozu". Ikusleek esan diotenez, "agian barrezka daudela, eta bukatzen denean pentsatzen gelditzen direla eta... Baina gogorra da ikusi duguna". Drama denbora luzez komedia dela gaineratu zuen Arangoak, "ez dakit zeinek esan zuen, baina gertatzen da. Gauzak distantziarekin ikusten dituzunean ez dirudite hainbesterako".

Arangoa "gauza inportanteekin" barre egitera ohituta dago: "Betidanik egin dut. Nire lanetan barkatasunaren inguruan hitz egiten dut eta heriotza ere uneoro ateratzen da, baina buelta emanda barre egiten duzu". Horretan lan egitea "oso interesgarria" dela gaineratu zuen; "bazaude horrelako gai batean, pasatzen bazara agian dramatikoa dela eta bestela agian ez zara barrera iristen".

Mitoaren erdigunea

"Unanu herriari eta mamuxarroei esker oneko" kontzertua eman zuen ZETAKek irailaren 28an, Ergoienako herrian. Mila pertsona inguru bildu ziren plazan. Angel Auzmendi unanuarra "herri lan handi" bateko pieza garrantzitsua izan zen

Erkuden Ruiz Barroso UNANU

Unanuko mamuxarroak, Altsasuko momotxorroak eta Arbizuko txatarrak irailaren 28an Unanuko plazan bildu ziren ZETAKen doinupean. MITOAROaren lehenengo urratsak eman ziren Ergoienako herrian egindako kontzertu berezian. Mila pertsona inguru bildu ziren Unanu herriari eta mamuxarroei esker oneko kontzertuan. Emanaldi "ahazte-zinean" Pello Reparazek auzolanean "fijazioa" duela esan zuen, eta Hatortxurock bezala jaialdi bat auzolanean antolatzen dela gogoratu zuen, Unanuko kontzertua auzolanik gabe ez litzakela posible izango esan zuen ere.

Auzolana aipatu du Angel Auzmendi adopzioz den unanuarra ere. Auzmendik eskerrak eman nahi dizkie boluntario izandako herritarrei, Unanuko kontzejari eta Ergoienako Udalari eta plaza inguruko etxeko jabeei, ateak ireki zituztelako: "Denei eskerrak eman; horientatik izango ez balitz, hau ez litzateke aurrrera aterako".

Mamuxarroak

Ataunen jaioa, Ordizian bizi izan da Auzmendi eta pandemian Unanura bizitzera joan zen. Orduan hasi zen mamuxarroen inguruan lan egiten. "Denbora asko behar izan da Mamuxarroen txokoa egiteko; argazkiak bildu, liburu bat egin zuten ere...". Duela urte eta erdi ZETAKeko Ane Eskala eta Artzai Iraurgi berekin harremanetan jarri ziren; "nirekin elkarrizketa bat egin edo zerbait komentatu nahi zutela esan zidaten eta Arbizuko kanpinean geratu ginen". Aurretik Auzmendik ez zituen ezagutzen, eta ZETAK "entzunez" ezagutzen zuen. Hortik hasi ziren. "ZETAK proiektu berri batekin



Pello Reparaz eta mamuxarroak kontzertuaren entseguan. UTZITAKOIA



"KONTZERTUA BAINO ZETAKEK IKUSKIZUNA EMATEN DU; JENDEA POZIK ATERA ZEN" ANGEL AUZMENDI

zebilela, mitologiaren gaiarekin, eta Unanuko mamuxarroekin eta haien materialarekin zerbait egin nahi zutela esan zidaten". Mamuxarroen katolak, panpaxilak, txanoak eta abar erabili nahi zituzten. "Ni hemen kanpotarra naiz, auzolanean aritu naiz eta inauterien inguruko lanak egiten ari naiz, baina kontzejarekin hitz egin behar nuen baimena eskatzeko". Kontzejarekin hitz egin zuen, "eta ni arduratzen banintz dena nire esku uzten zutela esan zidaten".

Poliki-poliki AAZTIYEN diskoaren iruditeria sortzen joan ziren, "eta iritsi zitzaidan larunbateko mobida hori antolatu nahi

zutela". Hasiera batean ez zuten zabaldu nahi izan, "pixkanaka lantzen" joan direla azaldu du Auzmendik. Duela bi hilabete inguru irailaren 28an izango zela jakinarazi zioten. "Goiko jendearekin hitz egin behar nuela esan nien. Udalean eskuak burura eramane zituzten: 'Baina, Angel, zuk badakizu zer etorriko den?' Unanukoek, aldiz, baietz esan zuten, tartean alkateak. Horrela hasi ginen gauzak lotzen".

ZETAK Unanuko plazan. Hori zen taldearen hasierako nahia: "Mitologia horren barruan plazak xarma ematen dio; mitologia horren erdigunea bezala sentitu zuen". Gainera, Unanu Euskal Herriko erdigunea ere dela gogoratu du Auzmendik.

Hasiera batean neurketa batzuk egin zituzten eta 750 bat pertsonendako "polita" izango zela ondorioztatu zuten, "baina hori nola lortu gero ondo neurtzeko?". Azkenean, mila pertsonendako jarri zuten eta hamar euroko sarrera simbolikoa jarri zuten, gehienbat edukiera kontrolatzeko. "Horrela ongi joan da; mila lagun oso ondo sartu dira, jendea pozik atera zen, sartu zen jende guztiak ikusi zuen ikuskizuna". ZETAKek egiten duena ikustekoa dela esan du Auzmendik, "kontzertua baino gehiago ikusteko ikuskizuna ematen du ZETAKek". Dena oso ongi joan zela eta arazorik ez zela sortu gaineratu du unanuarrek.

Herri txiki bateko plazatik, Nafarroa Arenara joango dira larunbatean Unanun egon ziren mamuxarroak, momotxorroak, txatarrak eta haiekin batera Iturango eta Zubietako joaldunak, Lantzeko inauterietako pertsonaiak eta Tuterako zipoteroak ere. MITOAROA urtarrilaren 3an eta 4an izango da, eta 3rako saiorako sarrerak salgai daude. "Ni joango naiz, nola ez. Mamuxarroak egongo dira, eta laguntzera joango naiz ere". Unanun egindakoa "baina handian" izango dela uste du Auzmendik.

Herria

Larunbatekoa zerbait historikoa izan zen Unanun. "Inauterietan jendea etortzen da, baina ez horrela; festetan ez da hainbeste jende etortzen". Unanuarrek egun osoko egitaraua prestatu zuten, "etortzen zirendako egun pasa izateko". Hortaz, eskoletako plazan herri kirolak izan ziren, poteo eta trikitixak, herri bazkarian



ZETAKen kontzertua Unanun. MARIO LEZAUN



Unanuarrek egun osoko egitaraua antolatu zuten, tartean herri bazkaria. UTZITAKOIA

bildu ziren, eta arratsaldean musika izan zen kontzertu garaira arte. Auzolanean ere bokatak prestatu zituzten, "gau luzea izango zelako". Dena oso ondo joan zela esan du Auzmendik. Dena antolatzeko, aurreko egunetatik eguraldiari begira egon ziren, "nora joan ez genekien eguraldi ona eskatzeko". Ostiralean aparkalekuak antolatzen hasi zirela azaldu du Auzmendik, "jabeekin hitz egiten eta dena antolatzen". Bestetik, Irurtzango, Lakuntzako eta Altsasuko udalei eskerrak ere luzatu dizkie, "komunak prestatu zituzten eta eszenatokiarekin lagundu zuten ere". Sakandarren arteko auzolana izan zen Unanuko; "ikustera etorri zen jende gehiena ere hemengo jendea zen, sakandarrak".

Guztira, 80 boluntariok lan egin zuten ZETAKen Unanuko kontzertua aurrera ateratzeko. "Biztanleak baino gehiago ia-ia. Bertako jendea kanpoan bizi dena, seme-alabak...". Laguntzaileen artean kontzertua ikusteko

aukerarik ez zutela izan aipatu du, "batzuei kanpoan lan egitea tokatu zitzaie". Izan ere, herria itxi zuten, eta bertan jendea behar izan zen ere. Lau hilabetetan disfrutatzeko aukera izango dutela gaineratu du, Nafarroa Arenan emango duen MITOAROA.

"Nik lan gehiena egina neukan, baina barruan tximeletak nituen eszneatokira igo behar nintzelako. Dena prestatuta nuen, eskerak eman behar nituen eta zozketaren zenbakiak atera. Tentsio batean bizi izan nuen". Azkenean, eszenatokian zegoela "Pellorekin hitz batzuk egin" eta ahotsik gabe ere zegoenez, ez zuten lortu esatekoa zuena helaraztea: "Gauza bat eta beste boluntarioei, udalari eta plazako etxeetako jabeek eskerrak ematea pasa zitzaidan; zenbakiak ez genituen atera...". Hala ere, "atsegina" izan zela esan du Auzmendik, "disfrutatu nuen ere". Hortaz, 20, 23, 90 eta 207 zenbakiak atera ziren zozketan (MITOAROAraiko bi sarrera).

Bardoak txapelketaren finalurrekoak heldu dira

Sei saio jokatu dira, gaur hiru eta urriaren 12an beste hiru. Manteleko sobrak taldea sailkatu da

SAKANA

Hamahiru saio jokatu amaitu da Bardoak Nafarroako Taldeko Bertsolari Txapelketaren lehen fasea. Gaur, urriak 4, abiatuko da finalurreko fasea hiru saioekin, horietako bat Irurtzango Pikuxarren, 18:30ean. Bertan, C multzoko lehenengo sailkatua den Argako Bixiguak eta D multzoko lehenengo, Mutilatuak, ariko dira. Sarrerak bost eurotan eros daitezke.

Bertsolari sakandarretatik Manteleko sobrak Leitza, Altsasu eta Barañaingo kideak dituen taldea pasa da finalurrekoetara

(A multzoko irabazlea). Gaur jokatu dute lehenengo finalurrekoa Tafallako Aguazon peñan, 19:00etan, Baztanopak taldearen aurka. Hurrengo fasea pasa diren beste bi taldeak Hor gu! (A, B, C eta D multzoetako bigarren sailkatua etan onena) eta EzKrashak (A, B, C eta D multzoetako bigarren sailatuetan bigarren onena; Iruñeko Aldapa peñan jokatu dute lehenengo finalurrekoa, gaur, 20:00etan.

Finalurrekoetako itzulia urriaren 12an izanen da.



BAZTERRETIK

OIHANE AGIRRE ULAIAR

Lurraz beste



"Herri inklusibo bat bihurtzea da helburua"

Etxarri Aranazko ferietan lehendabiziko aldiz ezgaitasun edo aniztasun funtzionala duten pertsonendako Txoko Lasaia egongo da. Barraketan ere hainbat aukera sustatu ditu udalak, Silbia Sesma Nazabal zinegotziak azaldu duenez. Batzorde bat sortu dute

Eneida C. M. eta E. R. B. ETXARRI A.

1 Aurten feria inklusiboak izango dira, zer esan nahi du horrek?

Pertsona guztiek festetan disfrutatu ahal izateko aukera. Orain arte, festa eredu konkretu eta barneratu batekin aritu gara, baina eredu honekin pertsona batzuk kanpo gelditzen dira. Edozein ezgaitasun edo aniztasun funtzionala duten pertsonak festa girotik kanpo geratzen dira. Hau gertatu ez dadin lanean hasiko gara.

2 Zergatik hartu du Etxarriko Udalak erabaki hau?

Udaletik inklusibitatea landuko duen batzorde baten beharra ikusi dugu. Inklusibitatea hitz oso zabala da, eta hainbat esparru hartzen ditu. Batzordean irisgarritasuna eta inklusibitatea lantzen hasiko gara, biak eskutik doazela ulertuta. Aldi berean, ezin ditugu beste esparruak ahaztu. Herri inklusibo bat bihurtzea izango da gure helburua; egunerokotasunean pertsona guztiek parte hartu ahal izateko. Herri inklusibo batean pertsona guztiak berdina dira eta barneratuta ditugun oztupoak gaituzten dira, aniztasunari, bere forma guztie-



Silbia Sesma Etxarri Aranazko udaleko zinegotzia Txoko Lasaia izango den liburategian.

tan, bere lekua eta garrantzia emateko. Pertsona bakoitza bere gaitasunekin eta ezaugarriekin aintzat hartu eta baloratzen da; herritar guztien parte hartzea bermatzen duen herria da.

3 Festa egunak denondako. Gaur egun zergatik ez dira?

Festa zatituta eta jendetsuak dira. Gehiegizko estimulo hauek zenbait pertsonendako oso kaltegarriak eta desatseginak dira.

Adibidez, soinuarekiko hipersensibilitatea duen pertsona baten dako sutziriak, petardoak, musika altua eta abar ez dira erosoak. Duela bi urte festetako programetan ikurra baten bidez sutziriak noiz botako dituzten abisatzen da. Oso ondo dago, baina ez da nahikoa. Jakin badakigu ezgaitasun edo aniztasun funtzional ezberdin eta ugari daudela, eta pertsona hauek jai giroaz disfrutatu ahal izateko aukera ematea izango da gure helburua.

4 Zer da zehazki pentsatu duzuen?

Txoko Lasaia prestatu dugu. Edozein momentutan festa giro zaratatsutik atera eta lasaitasuna behar duten haur, gazte eta helduendako. Barraketan ere beharra izanez gero hainbat gauza eska daitezke.

5 Zer da Txoko Lasaia?

Aniztasun funtzionala edo edozein ezgaitasun duten haur, gazte eta helduendako gune lasaia. Ez da jolas gela bat, eta erabil-tzaileek bere kargu dauden arduradun batekin sartu beharko dira. Lehentasuna lasaitasuna bermatzea da.

6 Non egongo da kokatuta?

Etxarriko liburategian; festaren erdian lasaitasun gunea.

7 Zein izango da ordutegia?

Larunbatean, 12:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 22:00etara, eta igandean 12:00etatik 15:00etatik 17:00etatik 21:00etara.

8 Barraketan, aldiz, zer pentsatu duzue egitea?

Musikaren bolumena eta argien intentsitatea jaistea eta abiadura

moteltzea eska dezakete, baita ilaretan zain egoteko zailtasunak duten pertsonak itxaron gabe muntatzeko lehentasuna izango dute ere. Oso egoera zaila eta desatsegina bilakatu daiteke, eta horrelako keinu txiki batekin erraztu dezakegu egoera zail hori. Herritarren kontzientzia eta inplikazioa behar dugu. Beste toki batzuetan egiten da eta interresgarria eta aberasgarria iruditatu zaigu. Betidanik ezagutzen ditugun haurren barrakak ez direla batere inklusiboak, ezta irisgarriak ere. Erroka handia dugu etorkizunari begira; ferietan kontzientzia eta inplikazioa gurtzea beharrezkoa da.

9 Barraketako arduradunekin hitz egin duzue gaiak?

Beraiekin elkartzeko gara guzti honetaz informatzeko.

10 Udalak beste norbaiten laguntza izango du egitasmo honetan?

Batzordea hasiberria da eta ferietan emango dituen lehenengo pausoak. Denboran zehar jarraipen bat edukitzea ezinbestekoa da. Bertan herriko jendea parte hartzea nahi dugu. Auzolanean lan egitea da helburua; herritarrek herritarrek zaintzea. Edozein pertsona parte har dezake, aniztasun funtzionala edo edozein ezgaitasun dutenek edo ez dutenek, alegia. Mundu guztia ongi etorri izango da.

11 Urtean zehar gehiagotan antolatuko da?

Jakina, lehenengo pausoak ferietan emango ditu, eta hemendik aurrera ez dago gelditzerik. Etxarri inklusibo bat lortu nahi dugu; inklusibo eta irisgarri bat, hain zuzen ere.



ZABALDU ZURE HERRIKO INFORMAZIOA

UDAL BULETINAK, ESKUORRIAK, LIBURUXKAK...
NAHI DUZUNA PRESTATUKO DIZUGU



DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA



619 821 436
Foru plaza, 23-1. Altsasu
info@gkomunikazioa.eus
www.gkomunikazioa.eus